



ETHSI ZIURTAGIRIA LORTU DUGU GURE ASEGURU ETIKO
ETA SOLIDARIOEN ERREKONozIMENDU GISA.

| **AUTOMOBILA**



LAGUN ARO

Lagun Aro Automobila Aseguru Poliza

Baldintza Orokorrak

AURKIBIDEA

LEGE-INFORMAZIOA	06
ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK	08
ASEGURUAREN OBJEKTUA	10
BERMEEN LABURPEN-KOADROA	11
LURRALDE-EREMUA	12
NAHITAEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEA	13
Nahitaezko Erantzukizun Zibila	14
Aseguru-eskaera eta proposamena	14
Berreskaera-eskubidea	17
BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEA	18
Borondatezko Erantzukizun Zibila	21
Defentsa Juridikoa	23
Defentsa Juridikoa	23
Defentsa penala zirkulazio-istripua dela-eta	26
Kalteak erreklamatzeko zirkulazio-istripua dela-eta	28
Defentsa trafikoko arau-hausteetan eta ikastaroen gastuak	30
Defentsa Juridikoaren Bermea Zabaltzea	33
Ibilgailuak izandako kalteak	35
Ibilgailuak izandako kalteak Bermea Zabaltzea	39
Balorazioa zabaltzea ibilgailua erabat galtzen denerako	39
Ibilgailuaren garbiketa zaurituak garraiatzeagatik	41
Giltzen kopia	42
Lapurreta	43
Sutea	46
Beirak	48
Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea	50
Pneumatikoetako kalteak	53
Istripu Pertsonalen Asegurua ibilgailuaren gidariarentzat	55
Heriotza-bermea	56
Ezintasun iraunkorraren bermea	57
Osasun-laguntzako bermea	58
Istripu Bermea zabaltzea ibilgailuaren gidariarentzat	59
Bidaiaiko Laguntza (ibilgailuen BGM ≤ 3.500 kg)	61
Pertsonentzako laguntza	64
Ibilgailuentzako eta bidaiarientzako laguntza	68
Funtsak aurreratzea	72
Izapide judizialak egiteko laguntza	72

Laguntza Zabaltzea	74
Ibilgailuarentzako laguntza zabaltzea	75
Bidaia-asegurua zabaltzea	76
Eguneroko bizitzarako laguntza	77
Gidabaimena Kentzea	83
Ordezko Ibilgailua	87
EZOHIKO ARRISKUAK	89
NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN	95
Alderdien eskubideak eta obligazioak	95
Kalteen balorazioa	99
Kalte-ordainen ordainketa	104
Subrogazioa	107
POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA	109
Aseguruaren oinarriak	109
Aseguruaren hasiera eta iraupena	109
Primen ordainketa	110
Arriskuaren aldatetak	111
Aseguratutako ibilgailuaren transmisioa	113
Hobariak, ezbeharririk ez izateagatik	113
Hartzekodun hipotekario, pignoraziozko edo pribilegiatuen eskubideak	116
Aseguruaren konkurrentzia	116
Jakinarazpenak	117
Kontratuaren preskripzioa eta jurisdikzioa	117

* Aurkibide honetan adierazitako bermeetako bakoitzaren identifikazioa bat dator, aparteko dokumentu batean, Baldintza Partikularretan benetan kontratatutako bermeak erlazionatzen dituenarekin.

LEGE-INFORMAZIOA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzaileen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen Aseguru etxeen eta berraseguratzaileen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-aseguruaren baldintza berezietakoak ere bai.

Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango polizako Baldintza Partikularretan zehazki eta idatziz onartuta ez badaude. Onarpen hori ez da beharrezkoa izango legezko arauen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

Aseguratzailerak SEGUROS LAGUN ARO, S.A. da, A-20079224 IFK duena eta egoitza sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, Sozietateen BI-186 liburukia, 36 folioa, BI 2483 orria, 1. inskripzioarekin, eta Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko den aseguru-erakundearen Erregistroan C-572 gakoarekin.

Ekonomia eta Lehiakortasunerako Ministerioko Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiari dagokio haren jardura kontrolatzea eta gainbegiratzea.

PRIBATASUN POLITIKA

Baldintza orokor honetan erantsita dagoen dokumentuan , aseguruak Seguros Lagun Aroren pribatasun politika kontsultatu ahal du.

NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Aseguru Hartzaileak lehendabizi Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo dezake, barneko esparruan, idazkia hona bidaliz:

- Seguros Lagun Aro
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua
Basurtuko Kaputxinoak, 6 - 2.
48013 Bilbo
www.seguroslagunaro.com
atencioncliente@seguroslagunaro.com

Bigarren, eta adostasun ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

- Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones.
Servicio de Reclamaciones
Paseo de la Castellana, 44
28046 Madrid.
www.dgsfp.mineco.es

Erreklamazioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean onar eta izapide daitezen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aroren bezeroaren arreta-zerbitzuari. Honek aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik konpondu edo ukatu beharko ditu erreklamazioak; hori ere idazki bidez. Halaber, erreklamatzailerak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa konpondu gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsi dela.

Edonola ere, beti izango du Epategi eta Justizia Auzitegi arruntetara jotzeko aukera.

ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK

Aseguratua. Arriskupean dagoen interesaren titularra, kasua denean, kontratutik sortutako eskubideak dagozkion pertsona. Aseguratuak bere gain har ditzake aseguru-hartzailearen obligazioak eta eginbeharrak.

Aseguruaren Hartzailea. Kontratu hau Aseguru Etxearekin sinatzen duen pertsona, eta hortik sortzen diren obligazioak bere gain hartu beharko dituena, espresuki aseguruari eta/edo onuradunari dagozkionak izan ezik.

Aseguru Etxea. SEGUROS LAGUN ARO, S.A., polizaren erakunde jaulkitzailea, Aseguratzailer gisa, eta prima kobratuta, kontratu honen objektu diren arriskuen estaldura bere gain hartzen duena, polizako baldintzen arabera.

Berritako balioa. Aseguruaren berdina den ibilgailu berri baten salmenta-prezioa, ezbeharra gertatu den egunean, errekaruak eta zergak barne. Ibilgailua fabrikatzen ez bada, lehen matrikulazioan ibilgailuak ordaindutako prezioa hartuko da berritako baliotzat.

Erabateko galera. Ibilgailua konpontzea errentagarria ez denean sortzen den egoera ekonomikoa: kalteak konpontzeak balio duenak automobilak duen salmenta-balioa berdinu edo gainditu egiten du.

Ezbeharra. Polizak estaltzen dituen ondorio ekonomiko kaltegarriak sortzen dituen gertaera. Gertaera beretik sortutako kalte guztiak ezbehar bakar gisa hartuko dira.

Familia-unitatea. Ezbeharraren unean aseguratutako ibilgailuaren gidariarekiko lehen mailako odol- edo ezkontza-harremana egiaztatzen duten edo ohiko bizileku berean bizi diren pertsonen multzoa, ezbeharraren unean aseguratutako ibilgailuaren gidariarekin bigarren mailako odol- edo ezkontza-harremana egiaztatzen dutenak.

Frankizia. Ezbeharra gertatzen denean aseguruak bere gain hartuko duen zenbatekoa edo ehuneko, Baldintza Partikularretan itundutakoa.

Gidaria. Ibilgailua gidatzeko edo zaintzapean edo ardurapean izateko legez gaituta dagoen pertsona, eta ibilgailuaren aseguruaren, jabearen edo erabiltzailearen baimena duena ezbeharra gertatutako unean.

Ibilgailu elektrikoa: Energia elektrikoko iturri batek elikatutako motor elektriko batek edo gehiagok propulsatutako ibilgailua, bateriak dituena. Bateria horiek ibilgailua sare elektrikora konektatuz karga daitezke.

Ibilgailu hibrido entxufagarria: Barne-errekuntzako motor batek eta motor elektriko batek propulsatutako ibilgailua. Bere bateriak ibilgailua sare elektrikora konektatuz karga daitezke.

Ibilgailuaren kategoria. Antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuen multzoa, Espainiako aseguru-sektorearen sailkapenaren arabera. Lehen mailako ibilgailuak hauek dira: turismoak, monobolumenak, lur orotakoak, turismoetatik eta lur orokoetatik eratorriak, eta 3.500 kg-tik beherako gehieneko masa baimenduta duten furgonetak. Bigarren mailako ibilgailuak hauek dira: 3.500 kg-ko edo gehiagoko gehieneko masa baimendua duten ibilgailuak, hala nola kamioiak, furgoi astunak, autobusak, industria-eta nekazaritza-ibilgailuak eta atoiak. Hirugarren mailako ibilgailuak ziklomotorrak eta motozikletak dira.

Ikus-entzunezko ekipamendu finkoa. Audio-, TB, bideo- edo nabigazio-ekipamendua, ez eramangarria, ibilgailuari berari finkatua; duen instalazio elektrikoak langile profesional batek muntatzea eskatzen du.

Kalte materialak. Gauzak edo animaliak galtzea edo hondatzea.

Kalte pertsonalak. Pertsonen lesioak, ezintasuna edo heriotza.

Markaren jatorrizko aukerako osagarria. Ibilgailuaren markak merkaturatutako hobekuntza nahiz apaindurako elementu edo ekipamendu oro, oinarritzko modeloak barne hartzen ez duena.

Noizbehinkako gidaria. Ohiko gidariak ez diren beste pertsonak, ibilgailua berak baino maiztasun txikiagoz gida dezaketena.

Ohiko gidaria. Eskaeran edo polizako Baldintza Partikularretan ohiko gidari gisa izendatutako pertsona edo pertsonak: aseguraturako ibilgailua sarritan gidatzen du, eta, horregatik, haren zirkunstantziak priman eragina izan dezaketen arrisku-faktoreak dira.

Onuraduna. Poliza honen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea duen pertsona, aseguru-hartzaileak, edo hala badagokio, aseguratuak, hala emanda.

Poliza edo aseguru-kontratua. Kontratu honen Baldintza Orokorrek, arriskua identifikatzen duten Baldintza Partikularrak eta asegurua indarrean dagoen bitartean gertatzen diren aldaketak biltzen dituen dokumentua.

Prima. Aseguruaren prezioa; ordainagirian sartuko dira, gainera, aseguru-hartzaileari jasanarazteko tributuak eta errekarquak ere.

Salmenta-balioa. Ezbeherra gertatu aurreko unean ibilgailuak zuen salmenta-prezioa da, eta Asociación Nacional de Vendedores de Vehículos a Motor, Reparación y Recambios (GANVAM) elkarteak argitaratutako Boletín Estadístico de Información izenekoa ibilgailu horrentzat ezarritakoa hartuko da erreferentzia gisa.

Zenbateko aseguraturua. Polizako Baldintza Partikularretan ezarritako diru-kopurua, Borondatezko Erantzukizun Zibileko eta Defentsa Juridikoko estalduretarako. Kalte eta Sute eta Lapurreta estalduretan aseguraturako ibilgailuaren eta osagarrien balioarekin bat etorriko da une oro.

ASEGURUAREN OBJEKTUA

Aseguratutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz sortzen diren arriskuei dagokienez, Aseguru Etxeak Baldintza Partikularretan berariaz azaltzen diren aseguru-bermeetako bakoitzari dagozkion prestazioak estaltzen ditu.

**KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGURATUAK ETA,
BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN
ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA**

BERMEEN LABURPEN-KOADROA

AUTOMOBILEN NAHITAEZKO ASEGURUAREN BERMEAK

Nahitaezko Erantzukizun Zibila

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Borondatezko Erantzukizun Zibila

Defentsa Juridikoa (Defentsa penala zirkulazio-istripua dela-eta,

Kalteen erreklamazioa eta Defentsa trafikoko arau-hauste

administratiboak direla-eta)

Defentsa Juridikoa zabaltzea

Ibilgailuak izandako kalteak

Ibilgailuen Kalteen Estaldura zabaltzea

Ibilgailuaren lapurreta

Ibilgailuaren sutea

Beirak haustea

Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea

Pneumatikoetako kalteak

Istripu Pertsonalen Asegurua ibilgailuaren gidariarentzat

Istripu Bermea zabaltzea ibilgailuaren gidariarentzat

Bidaiko laguntza (ibilgailuen BGM \leq 3.500 kg)

Laguntza zabaltzea

Gidabaimena kentzea

Ordezko ibilgailua

EZOHIKO ARRISKUAK

LURRALDE-EREMUA

Aseguru honek estalitako bermeak Europako Ekonomia Esparruaren lurralde osoan nahiz Bermeko Hitzarmen Multilateralari atxikitako Estatuetan gertatutako ezbeharrei bakarrik aplikatuko zaizkie, beste lurralde-eremu bat zehazten duten bermeetan izan ezik.

**KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGRATUAK ETA,
BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN
ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA**

AUTOMOBILEN NAHITAEZKO ASEGURUAREN BERMEA

Urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuan (Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilarari eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) eta irailaren 12ko 1507/2008 Errege Dekretuan (Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilaren Nahitaezko Aseguruaren Erregelamendua onartzen duena) aurreikusitakoak, batetik, eta Baldintza Orokor hauetan hitzartutakoak, bestetik, arautzen du Nahitaez Harpidetu beharreko Aseguruaren bermea.

Hauek aplikatuko zaizkio xedapen hauetan aurreikusi gabekoari: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen Aseguru etxeen eta berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak.

Baldintza Partikularretan espresuki azaltzen bada, kontratatutako bermea estalitzat hartuko da ezarritako mugen barruan eta poliza honi aplikagarri zaizkion Baldintza Orokorrekin bat.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

→ *Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.*

AUTOMOBILEN NAHITAEZKO ASEGURUAREN BERMEA

Nahitaezko Erantzukizun Zibila

ASEGURU-ESKAERA ETA PROPOSAMENA

Nahitaez harpidetu beharreko aseguru eskatzeak arriskuaren estaldurako ondorioak eragiten ditu hamabost eguneko epean, erakundeak —edo honen agente batek— izapidetzen duen unetik beretik.

Aseguratzailerak uko egin diezaioke eskaera horri, hamar eguneko epean, gehienez ere, aseguru-eskaera izapidetzen denetik aurrera, hartzaileari idatzi bat bidaliz, idatzia jaso izana segurtatuko duen edozein bidez, eta kausak zehaztuz, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako hamabost eguneko estalduragatik dagokion prima jasotzeko eskubidea izango du. Hamar eguneko epea igaro ondoren, aseguratzailerak kontratazioa atzera botatzen ez badu, onartu egin dela ulertuko da.

Behin eskaera izapidetu eta hamar eguneko epea pasatu ondoren, aseguratzailerak aseguru-poliza bidali beharko du, hamar eguneko epean.

Estaltzen dira



→ Kontzeptu guztiengatik legez edota araudiz finkatutako kopurura iritsi arte, gidariaren erantzukizun zibiletik eratorritako kalte-ordainak, polizako Baldintza Partikularretan identifikatutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz eragindako gorputzeko kalteengatik, ez baldin bada frogatzen kalte horiek kaltetuaren jokabidearengatik edo zabarkeriarengatik edo ibilgailua gidatzearekin edo ibilgailuaren funtzionamenduarekin zerikusirik ez duen ezinbesteko arrazoiren batengatik bakarrik gertatu direla. Ibilgailuaren akatsak, edo pieza edo mekanismoren bat haustea edo huts egitea ez dira ezinbesteko arrazoitzat joko.

→ Finkatutako kopurura iritsi arte, aseguraturako ibilgailuak eragindako kalte materialak, baldin eta erantzukizun zibila gidariarena bada. Horretarako, kontuan hartuko dira: Kode Zibileko 1902. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dena, Zigor Kodeko 109. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen dena, eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen testu bateginean ezartzen dena.

Adibideak

- Zirkulatzen ari zarenean, kolpe bat jo diozu aurreko ibilgailuari, eta kalteak eragin dizkiozu ibilgailuari nahiz bertako pertsonari.
- Ibilgailua aparkatzen ari zarenean, aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati kalteak eragin dizkiozu..

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako ibilgailuaren gidariari eragindako kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuak izandako kalte materialak.
- Aseguratutako ibilgailuan garraiatzen diren gauzek izandako kalte materialak.
- Ondasunek izandako kalte materialak, ondasun horien titularrak aseguru-hartzailea, aseguratua, jabea, gidaria eta berebat aurrekoen ezkontideak edo familiartekoak direnean, odol bidezko edo ezkontza bidezko hiru garren graduraino.
- Aseguratutako ibilgailuak, lapurtua izan denean, eragindako kalte pertsonalak eta materialak, urriaren 29ko Legegintzako Errege Dekretuan (Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilaria eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) xedatutakoaren arabera Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estaltzearen kalterik gabe. Lege honen ondorioetarako, lapurretatzat hartzen da Zigor Kodean hala tipifikatutako jokabidea.
- Kalte pertsonal eta materialengatiko kalte-ordainen ordainketa, baldin eta frogatzen bada kalte horiek kaltetuaren jokabidearengatik edo zabarkeriarengatik edo ibilgailua gidatzearekin edo ibilgailuaren funtzionamenduarekin zerikusirik ez duen ezinbesteko arrazoik batengatik bakarrik gertatu direla. Ibilgailuaren akatsak, edo pieza edo mekanismoren bat haustea edo huts egitea ez dira ezinbesteko arrazoitzat joko. Aseguru Etxeak ezingo ditu eskusio horiek kaltetuaren aurka jarri, baina berreskaera-eskubidea erabili ahal izango du ezbeharraren erantzulearen aurrean.

Ez dira estaltzen



→ Mozkortuta gidatzean edo drogen, toxikoen edo sorgogarrien eraginpean gidatzean eragindako kalte materialak, baldin eta frogatzen bada zirkunstantzia horietako edozein istripurako kausa erabakitzailea izan dela. Aseguru Etxeak ezingo ditu eskusio horiek kaltetuaren aurka jarri, baina berreskaera-eskubidea erabili ahal izango du ezbeharraren erantzulearen aurrean.

→ Aseguru-hartzaileak edo gidariak garraiatutako pertsonen kopuruari eta baldintzei buruzko edota kargaren pisuari edo tamainari buruzko arau-xedapenak bete ez dituztean eragindako kalte pertsonalak eta materialak, betiere arau-hauste hori istripuaren kausa erabakitzailea izan denean. Aseguru Etxeak ezingo ditu eskusio horiek kaltetuaren aurka jarri, baina berreskaera-eskubidea erabili ahal izango du ezbeharraren erantzulearen aurrean.

→ Ibilgailuaren gidaria espresuki edo tazituki baimendu gabeko pertsona bat denean, gidabaimenik ez duenean edo ibilgailuaren segurtasun-neurriei buruzko maila teknikoko obligazio legalak betetzen ez dituztean eragindako kalte pertsonalak eta materialak. Aseguru Etxeak ezingo ditu eskusio horiek kaltetuaren aurka jarri, baina berreskaera-eskubidea erabili ahal izango du ezbeharraren erantzulearen aurrean.

Adibideak

- Aseguratutako ibilgailuaren gidariak ezbehar baten ondorioz izandako kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuak garraiatzen zuen telebista batek jasandako kalte materialak.

BERRESKAERA-ESKUBIDEA

Aseguru Etxeak, behin kalte-ordaina emanda, berreskaera-eskubidea erabili ahal izango du:

→ Gidariaren aurka, kalteak eragin dituen ibilgailuaren jabearen aurka eta aseguruaren aurka, baldin eta eragin diren kalteak horietako edozeinen doluzko jokabidearen ondoriozkoak badira, edota edari alkoholduen, droga toxikoen, sorgogarrrien edo gai psikotropikoen eraginpean gidatzearen ondoriozkoak badira.

→ Kalteen erantzukizuna duen hirugarren baten aurka.

→ Gidariaren aurka, mozkortuta gidatu duenean edo drogen, toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean gidatu duenean, baldin eta frogatzen bada zirkunstantzia horietako edozein istripuaren kausa erabakitzailea izan dela.

→ Aseguruaren edo gidariaren aurka, kargaren pisuari eta tamainari buruzko arauzko xedapenak bete ez dituztenean edota garraiatutako pertsonen kopuruari eta baldintzei buruzkoak bete ez dituztenean, betiere arau-hauste horiek istripuaren kausa erabakitzailea izan direnean.

→ Aseguru-hartzailearen aurka, ibilgailuaren gidaria espresuki edo tazituki baimendu gabeko pertsona bat denean, gidabaimenik ez duenean edo ibilgailuaren segurtasun-neurrii buruzko maila teknikoko obligazio legalak betetzen ez dituztenean eragindako kalte pertsonalak eta materialak.

→ Legeen arabera, berreskaera bidezkoa den beste edozein kasutan.

Aseguratzailerearen berreskaera-akzioak urtebete igarotakoan preskribatuko du, kaltetuari ordainketa egindako datatik kontaktzen hasita.

Adibidea

→ Ezbeharrak gertatu bada ibilgailua edari alkoholduen eraginpean gidatu delako, Aseguru Etxeak, behin kalte-ordainak emanda, berreskaera-eskubidea erabili ahal izango luke aseguratutako ibilgailuaren gidariaren aurka.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Polizako Baldintza Partikularretan espresuki azaltzen bada, kontratatutako bermeak estalitzat hartuko dira ezarritako mugen barruan eta poliza honi aplikagarri zaizkion Baldintza Partikularrekin bat.

BERME HAU ORDAINTEZKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

→ *Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.*

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

ESKLUSIO OROKORRAK

Oro har eta berme guztien kasuan, Aseguru Etxeak ez ditu estaltzen ondorengo arrazoiak tarteko sortu edo eragindako ondorioak:

→ Aseguratuaren nahiz gidariaren fede gaiztoa.

→ Gerra, inbasioa, etsaigoak (gerra-deklarazioarekin edo gabe), errebolta, iraultza, altxamendua edo botere-usurpazioa.

→ Kutsu politikoa edo soziala duten egintzak, matxinadak eta jende arteko iskanbilak eta kalapitak, bake-garaiko neurri edo indar militarrek.

→ Uholdeak, sumendien erupzioak, urakanak, mugimendu sismikoak, lur-jausiak, ohiz kanpoko bestelako fenomeno sismiko nahiz meteorologikoak, eta, oro har, edozein kausa ohiz kanpoko edo katastrofiko.

→ Erreakzio edo erradiazio nuklearra nahiz kutsadura erradioaktiboa.

→ Ibilgailuaren gidaria droga toxikoen edo sorgogarrien eraginpean edo mozkortuta dagoenean. Gidaria mozkor zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada zirkunstantzia horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharra gertatzeko.

→ Gidariak aseguratutako ibilgailuaren kategoriari dagokion baimena ez duenean, edo gidabaimena kentzeko edo erretiratzeko kondena urratu duenean.

→ Aseguratutako ibilgailua lapurtzearen ondorioz gertatzen direnak, Lapurretaren estalduran xedatutakoari kalterik egin gabe, halakorik kontratatuta izanez gero.

→ Aseguratuak nahiz gidariak arau-xedapenak hautsi dituenan garraiatutako pertsonen kopuruari eta baldintzei, garraia daitezkeen gauza edo animalien pisu eta neurriei edo horiek moldatzeko erari buruz, eta arau-hauste hori istripuaren kausa erabakitzailea izan denean.

Jarraitzen du...

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

ESKLUSIO OROKORRAK

- Aseguratuak parte hartzen duenean apustueta edo erronketan.
- Aseguratutako ibilgailuan garraiatutako erregaiek, esentzia minerelek eta beste gai sukoi, leherkor edo toxikoek eragindako zuzeneko eta zeharkako kalteak, ezbeharrak zirkulazio-istripu baten ondorioz gertatu arren.
- Aseguratutako ibilgailuak lasterketetan, lehiaketetan nahiz prestakuntzako probetan parte hartzetik eratorritako ondorioak, Baldintza Partikularren barruan berariaz sartu eta dagokien gainprima ordaintzen ez bada behintzat.
- Aseguratutako ibilgailua kaien barrutien barruan egotearen ondorioak —ibilgailuak aipatutako barrutien zerbitzu eskusiborako jarrita badaude edo normalean horietan ibiltzen badira— eta aireportuen barrutien barruan egotearen ondorioak —edozein kasutan—, Baldintza Partikularren barruan berariaz sartu eta dagokien gainprima ordaintzen ez bada behintzat.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Borondatezko Erantzukizun Zibila

Estaltzen dira



- Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Asegurari buruzko Legeak ezarritako estaldurak gainditzen dituzten kalte-ordainak ematea, Polizako Baldintza Partikularretan aurreikusten den zenbatekoaren muga arte.
- Auzitegiek aseguratuari nahiz gidariari erantzukizun zibil gisa galda diezazkioketen fidantzak ezartzea.
- Ibilgailu aseguratua bere bateriak kargatzeko prozesuan hirugarren pertsonen jabetzako kargaguneei eragindako zuzeneko kalte materialak, ibilgailu aseguratua ibilgailu elektrikoa edo hibrido entxufagarria denean.

Adibidea

- Oinezko bat harrapatu duzu, eta Nahitaezko Erantzukizun Zibileko Asegururako lege ezarritako kalte-ordainen mugak gainditzen dituzten kalteak eragin dizkiozu.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA.



Ez dira estaltzen

- Aseguratutako ibilgailuaren gidariari eragindako kalteak.
- Pertsoneri egindako kalteen erantzukizuna, Legeak ezarritakoaren arabera gidariak ez badu bete pertsona horiek sorotsi beharra.
- Garraiatutako gauzei eragindako kalteen erantzukizuna.
- Ibilgailuan garraiatutako gauzek edo aseguruaren edo haren erantzukizunpean dauden pertsonen eskuetan dauden gauzek eragindako kalteen erantzukizuna, salbu erabilera partikularreko automobil batean garraiatutako bizikleta, eski edo kutxa homologatuek eragindako kalteak.
- Aseguratuari dagokion kontratuzko erantzukizun zibila.
- Garraiatzen diren pertsoneri eragindako kalte edo lesioen ondoriozko erantzukizuna, pertsonak garraiatzeko baimen ofizialik ez duen ibilgailua denean.
- Auzitegiek edo agintari eskudunek ezarritako isunak, zigor ekonomikoak eta kostuak.
- Ondasunek izandako kalte materialak, baldin eta ondasunen titularrak aseguru-hartzailea, aseguratuak, jabea, gidaria nahiz aipatutako enkontideak edo familiartekoak badira, odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren graduraino, haiekin edo haien kontura bizi badira.
- Aseguratuak pertsona juridikoa bada, ondasunek izandako kalte materialak, baldin eta ondasunen titularrak haren legezko ordezkariak badira, edota aipatutakoaren ezkontideak edo familiartekoak, odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren graduraino, haiekin edo haien kontura bizi badira.
- Ibilgailu traktoreek, uzta-makinek, iraulkiek, brozel-kamioiek, hondeatzeko palek, hormigoi-kamioiek, konpresoreek, garabiek eta antzekoek eragindako istripuek sortutako kalteak, oro har, istripua industria edo nekazaritzako lanetan zihardutela gertatu bada.

Adibideak

- Zirkulatzen ari zinela, kolpe bat jo diozu zurekin bizi den anaiaren automobilari, eta kalteak eragin dizkiozu atzealdean.
- Bidaia batean zehar, eta ibilgailuaren maleta-lekuan egitura metaliko bat garraiatzen ari zinela, egiturak kolpe bat eman dio beste ibilgailu bati, eta kalteak eragin dizkio.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Defentsa Juridikoa

DEFENTSA JURIDIKOA

Estaltzen dira



→ Aseguratutako ibilgailuak parte izandako istripu baten ondorioz sortutako prozedura administratibo, judizial edo arbitral batean parte hartzeagatik aseguruak egindako gastuak, baita estaldura honetako bermeetatik eratorritako laguntza juridiko, judizial eta judizioz kanpoko zerbitzuak ematea ere.

- Estalitako prozedurak izapidetzearen ondoriozko tasa, eskubide eta kostu judizialak.
- Abokatuaren ordainsariak eta gastuak, nahitaez parte hartu behar duenean, dagokion Elkargo Profesionalak zehaztutako ordainsari orientagarrien taulako mugara arte.
- Prokuradorearen eskubideak eta ordejarriak, nahitaez parte hartu behar duenean, dagokion Elkargo Profesionalak zehaztutako ordainsari orientagarrien taulako mugara arte.
- Notariotzako gastuak eta auzietarako ahalordeak egilestekoak eta aseguruaren interesak defendatzeko behar diren akta, errekerimendu eta gainerako ekintzak.
- Prozesu penaletan kostu judizialei erantzuteko jarri beharreko fidantzak eratzea, kalte-ordainak eta isunak kanpoan utziz.
- Kontratutako poliza-modalitatearen Baldintza Orokorretan espresuki bermatutako beste prestazio guztiak.

→ Aseguruaren interesak ondo defendatzea, defentsak ahalordetutako profesionalen zerbitzuak haren eskura jarritz. Aseguruari honako eskubide hauek bermatzen zaizkio:

- Edozein motatako prozeduretan ordezkari eta defendatzaile izango dituen Abokatua eta Prokuradorea askatasun osoz aukeratzeko eskubidea.
- Abokatua eta Prokuradorea askatasun osoz aukeratzeko eskubidea, alderdien artean interes-gatazkarik sortuz gero.

Jarraitzen du...

Estaltzen dira



- Aseguratuak izendatutako Abokatua nahiz Prokuradorea ez dira, inola ere, Aseguru Etxearen aginduetara egongo.
- Aseguratuak eskubidea izango du beraren eta Aseguru Etxearen artean aseguru-kontratu honi buruz sor daitekeen edozein desadostasun arbitrajepean jartzeko. Arbitroen izendapena ezingo da egin harik eta eztabaida sortu arte.

Arrazoi bera duten gertakariak direnean eta une berean gertatu direnean, ezbehar bakar gisa hartuko dira.

Baldintza Orokor hauetako 97, 98 eta 99 orrietan ezartzen dira alderdiek berme honekiko dituzten prozedurak, eskubideak eta betebeharrak.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA, ABOKATUA ETA/EDO PROKURADOREA ASKATASUN OSOZ AUKERATZEKO ESKUBIDEA BALIATUZ GERO.

ASEGURATUAK, ASEGURU-HARTZAILEAK ETA/EDO GIDARIAK LEHENTASUNA IZANGO DUTE EGINDAKO GASTUAK ABONATZEARI DAGOKIONEZ. DOAN GARRAIATUTAKO BIDAIARIEI BERME HONEN KALTE-ORDAINA EMANGO ZAIE SOILIK ASEGURATUAREN, ASEGURU-HARTZAILEAREN ETA/EDO GIDARIAREN KALTE-ORDAINAK KONTSUMITU EZ BADU BALDINTZA PARTIKULARRETAN EZARRITAKO CAPITAL-MUGA.

Adibidea

- Beste ibilgailu baten erantzukizuna den zirkulazio-istripu baten ondorioz, aseguratua lesionatu egin da. Aseguru Etxeak aseguruaren interesak defendatuko ditu, Konpainiak ahalordetutako profesionalen zerbitzuak aseguruaren eskura jarritz.

Ez dira estaltzen



- Aseguratuari kondenez ezartzen zaizkion kalte-ordain, isun edo zigorrak.
- Dokumentu publikoak edo pribatuak erakunde ofizialen aurrean aurkezteagatik sortzen diren zergak edo izaera fiskaleko bestelako ordainketak.
- Metatze edo errekonbentzio judizialetik sortutako gastuak, bermatutako estalduretan sartu gabeko gaiei buruzkoak direnean.
- Ordainsarien kalkuluan, jurisdikzioa edozein dela ere, eskalak aplikatzeko oinarria epai irmo bidez benetan lortu edo onartutako zenbatekoa edo kopurua izango da, eta ez eskatutakoaren zenbatekoa.
- Aseguratutako ibilgailuari lotutako gertaeretatik eratorritako abokatu, prokuradore, fidantza, tasa, ordejarri, eskubide eta judizio-kostuak, zirkulazio-istripurik izan gabe, bide-segurtasunaren aurkako faltak eta delituak, esate baterako.

Adibideak

- Zirkulazio-istripu bat gertatzen bazaizu eta isuna jartzen badizute gehiegizko abiaduran zindoazelako, zure kargu joango da isuna ordaintzea.
- Bide-segurtasunaren aurkako delitu batean sartzen bazaituzte zirkulazio-istripurik izan gabe, Aseguru Etxeak ez du estaliko laguntza juridiko, judizial eta judizioz kanpoko zerbitzuak ematea, ezta gertaera horretatik eratorritako gastu edo fidantzarik ere.

Defentsa Juridikoa

DEFENTSA PENALA ZIRKULAZIO-ISTRIPUA DELA-ETA

Estatzen dira



→ Erantzukizun kriminalaren defentsa egitea hartzailearen alde, aseguratutako ibilgailuaren gidari gisa, eta hark baimendutako beste edozein gidariren alde, zirkulazio-istripua izanez gero.

→ Abokatuen nahiz prokuradorearen ordainsariak ordaintzea, nahitaez parte hartu behar dutenean.

→ Prozedura penalean sortzen diren gastu judizialen ordainketa, zehapen pertsonalena izan ezik, eta, zehazki, profesionalen ordainsarien gastuena.

→ Aseguru Etxeak eratuko du auzi kriminalean eskatzen den fidantza, aseguratutako gidariaren edo onuradunaren behin-behineko askatasuna bermatzeko.

→ Aseguru Etxeak eratuko du auzian kostu kriminalak bermatzeko behar den fidantza.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

→ Oinezko bat harrapatzen baduzu, Aseguru Etxeak defendatuko zaitu, egozten zaizun erantzukizun kriminalaren aurka..

Ez dira estaltzen



- Aseguratuak, epai judizial irmoaren arabera, nahita egindako egintzak.
- Erantzukizun zibilen defentsa, edozein jurisdikziotan bideratuta ere, kaltearen erreklamazioan ezarritakoaren arabera arautuko da.
- Gidariak edo aseguratuak isunagatik edo erantzukizun zibilengatik dituzten erantzukizunak.

Adibidea

- Zure ibilgailuaren gidariak oinezko bat nahita harrapatu duenean.

Defentsa Juridikoa

KALTEAK ERREKLAMATZEA ZIRKULAZIO-ISTRIPUA DELA-ETA

Estaltzen dira



→ Ezbeharren izapidetze adiskidetasunezko eta judizialaren gastuak ordaintzea, izapidetze hori egiten bada aseguratuari edo aseguratutako ibilgailuaren gidari baimenduari zor zaizkion kalte-ordainak lortzeko, hirugarren erantzuleen kargura, heriotza edo lesioak izan direnean, baita erabilera eta zirkulazioaren ondorioz aseguratutako ibilgailuan izandako kalte eta galerengatikoak ere.

→ Ezbeharren izapidetze adiskidetasunezko eta judizialaren gastuak ordaintzea, izapidetze hori egiten bada bertan doan garraiatzen ziren pertsoneri zor zaizkien kalte-ordainak lortzeko, hirugarren erantzuleen kargura. Hala ere, istripuaren erantzukizuna aseguratutako ibilgailuaren gidariarena, hartzailearena edo jabearena dela-eta kalte-galeren erreklamazioa Aseguru Etxearen aurkakoa denean, ez da erreklamazioa bermatuko.

→ 300 eurora arte, Espainiako lurraldean hirugarren erantzule identifikatuak lokalizatzeke gastuak, bitarteko egokienak baliatuz, gorputzeko kalte eta/edo kalte materialen erreklamazioa 600 eurotik gorakoa denean eta prozesu judiziala martxan dagoenean, prozesu hori gerarazita badago ustezko erantzulea leku ezezagunean dagoelako.

→ Aseguru-hartzaileak eskatuta, aseguratutako ibilgailuan garraiatutako salgaietan eta zirkulazio-istripuaren ondorioz kaltetutako objektu pertsonal eta gauzetan eragindako kalte materialen erreklamazioa, betiere, une horretan, aseguratutako ibilgailuaren barruan badaude.

→ Zirkulazioarekin zerikusirik ez duten ondoko gertakariak direla-eta aseguratutako ibilgailuan izandako kalteen zenbatekoaren erreklamazio-gastuak: hirugarren batzuen gaizkinahia, obrak erortzea, leherketak, eta uholdeak nahiz suteak, betiere aseguruaren eta kalte horien erantzulearen artean kontratu bidezko harremanik ez badago.

Estaltzen dira



→ Aseguru-hartzailea pertsona juridikoa bada, estaldura hauek aplikatuko zaizkio pertsona juridiko horrek aseguratutako ibilgailuaren ohiko gidari izendatzen duenari, dokumentu bidez frogatuta.

→ Ibilgailu aseguratuari bere bateria kargatzeko prozesuan eragindako kalte elektrikoen zenbatekoa erreklamatzeko gastuak, ibilgailu aseguratua ibilgailu elektrikoa edo hibrido entxufagarria denean. Bertan sartuko dira aseguruaren jabetza eksklusibokoa den kargagunean zirkulazio-istripu baten, hirugarrenen gaizkinahiaren, uholdeen eta suteen ondorioz sortutako kalteak erreklamatzeko gastuak ere, betiere aseguruaren eta kalteen erantzulearen artean kontratu-harremanik ez badago.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibideak

- Istripu bat baduzu zure ibilgailuarekin, eta erantzulea kontrako ibilgailua bada, Aseguru Etxeak kalte-eragileari erreklamatuko dizkio zure ibilgailuaren kalteak.
- Zirkulazio-istripu batean automobilean zeneraman telebistak kalteren bat izaten badu, Aseguru Etxeak erantzuleari erreklamatuko dio dagokion kalte-ordaina.

Ez dira estaltzen



→ Ezbeharren izapidetze adiskidetasunezko eta judizialaren gastuak ordaintzea, eratorritako kalte-galeren erreklamazioa Aseguru Etxearen aurkakoa bada, istripuaren erantzukizuna aseguratutako ibilgailuaren gidariarena, hartzailearena nahiz jabearena delako.

Defentsa Juridikoa

DEFENTSA TRAFIKOKO ARAU-HAUSTEETAN ETA IKASTAROEN GASTUAK

Estaltzen dira



→ **Aholkularitza, eta, egoki bada, alegazioak eta errekurtsio arruntak eta berraztertzeak prestatzea eta aurkeztea Zirkulazioari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea (339/1990 ELD) hausteen aurkako zehapenen aurka eta zirkulazioa arautzen duten gainerako legeak hausteagatik aseguratuari edo polizan deskribatutako ibilgailuaren gidari baimenduari ezarritako zehapenen kontra egin badira, eta zehapen horiek zigor ekonomikoa edo gidabaimena kentzea ekar badezakete, betiere Espainiako lurraldearen barruan gertatu badira eta bermeen objektu diren gaitan eskudun diren Espainiako organismoek aplikatu beharreko Zuzenbideari lotuta.**

→ Aseguru Etxeak erabakiko du zein profesionalak egingo dituzten salaketan deskarguak eta dagozkien errekurtsioak.

→ Aseguru Etxea arduratuko da zehapenaren likidazioa egiteaz, aseguruak hala eskatzen badu eta behar den funts-hornidura egiten badu.

→ **Administrazio bideetiko errekurtsioak, puntu-kenketa oker eginez gero, baldin eta dagokion administrazio-organoak administrazio bidezko zehapen irmo baten berri ematen badio aseguratuari eta horregatik deskontatutako puntuen kopurua, indarrean dagoen legeriaren arabera legokiokeena baino handiagoa bada, edota geratzen zaizkion puntuen saldoa bere aurrekarien arabera legokiokeena baino txikiagoa bada.**

→ **Zirkulazioko Zehapenak bilatzeko zerbitzua ematea.** Aseguratuarentzako prestazio gisa, zirkulazioko arau-hausteengatik ezarritako zehapenak edo salaketak bilatzeko zerbitzua eskainiko du Aseguratzailleak, ediktu bidez argitaratu eta ibilgailuaren gidariari edo jabeari komunikatu gabekoak direnean.

Estaltzen dira



Prestazio horren baitan, Aseguratzailerak honako hauetan kontsultatzera mugatuko da: sarbide libreko datu-base ofizial informatizatuan, Probintziako Aldizkari Ofizialetan eta Zirkulazioko Zehapenen Ediktu Taulan (TESTRA).

Kontsulta ibilgailu aseguruaren matrikularen arabera egingo da egindako arau-hausteetarako eta ediktuen arabera, poliza indarrean dagoen bitartean.

Datu-base informatizatuan matrikula ediktu bidez komunikatutako zirkulazioko arau-hauste bati lotuta agertzen bada, ahalik eta lasterren, aseguru-hartzaileari jakinaraziko zaio, posta elektronikoko kontuaren bidez soilik, edo SMS bidez aseguru-hartzaileak Aseguru Etxeari emandako telefono mugikorrera, interesduna isunaren zehapenez edo horren proposamenaz ardua dadin edo egotzitako arau-hausteari behar bezala aurka egin diezaion. Aseguru-hartzaileari bidaliko zaion komunikazio telematikoa funtsezkoak diren ediktu-komunikazioaren datuak adieraziko dira.

ZERBITZU HORI EMANGO DA BALDIN ETA ASEGURU-HARTZAILEAK ASEGURU ETXEARI TELEFONO MUGIKORAREN ZENBAKIA ETA/ EDO HELBIDE ELEKTRONIKOA EMAN BADIO.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

- Zure ibilgailuarekin ezarritako abiadura-muga baino lasterrago zindoazela zehapena ezarri dizute. Aseguru Etxeak bere gain hartuko du salaketaren deskargua.

Ez dira estaltzen



- Isunen edo zehapenen zenbateko ekonomikoa.
- Salaketen deskarguagatik eta berraztertze-errekurtso arruntengatik sortutako gastuak, Espainiako lurraldetik kanpo gertatu badira edo ez badaude Espainiako erakunde eskudunek bermeen objektu diren gaietan aplika dezaketen Zuzenbidearen mende.
- Administrazio-bidea gainditzen duten Aseguru-etxearen prestazioak; bestelako administrazioarekiko auzibide edo bide judicial guztiak espresuki kanpoan gelditzen dira.
- Dokumentu publiko edo pribatuak erakunde ofizialen aurrean aurkezteagatik sortzen diren zergak edo izaera fiskaleko bestelako ordainketak.
- Prestakuntza-ikastaroetan izena emateko gastuak, gidabaimena aldi baterako nahiz behin betiko kentzea berekin dakarten gertaeren ondoriozkoak direnean.
Aseguratuak, isun bat ezarri diotela jakinarazten diotenean, Aseguru Etxearekin harremanetan jarri beharko du, 7 eguneko epean gehienez ere, jakinarazpena eta jakinarazpena zetorren gutun-azala aurkeztuz.
- Komunikazio-faltaren, akatsen edo Interneteko atzerapenen ondorioak edo identifikazio-datu nahikorik ez izatearen ondorioak, Aseguratuaren eskubideetan eragina izan dezaketenak.

Adibidea

- Isun bat jartzen badizute gaizki aparkatu duzulako, zure kargu joango da isunaren zenbatekoa.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Defentsa Juridikoaren Bermea zabaltzea

Estaltzen dira



→ **IBILGAILUA GAIZKI KONPONDU DELAKO EGINDAKO ERREKLAMAZIOA.** Aseguratutako ibilgailua baimendutako tailer batean konpontzen denean, istripua nahiz matxura izan duelako, konponketaren zenbatekoa 300 eurotik gorakoa bada, eta konponketa oker egin bada peritu-txostenaren arabera, Aseguru Etxeak bermatzen du aseguruak izandako kalte-galeren erreklamazioa adiskidetasunez edo judizialki egitea, Baldintza Partikularretan adierazitako mugara arte. Ibilgailua gaizki konpondu delako erreklamatzeko bermearen kasuan, Defentsa Juridikoaren Bermerako ezarritako guztia aplikatuko da.

BERME HONENGATIK ERREKLAMATZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ASEGURATUTAKO IBILGAILUAK BEHAR ZUEN KONPONKETAREN KOSTUA 300 €-TIK GORAKOA IZATEA.

→ **DEFENTSA PENALA ETA KALTEEN ERREKLAMAZIOA ZABALTZEA.** Defentsa penalaren eta Kalteen erreklamazioaren bermeak —zirkulazio-istripuak direla-eta— zabaldu egiten dira, hartzailearen, ezkontidearen nahiz hartzailearekin batera etxe berean eta haren kontura bizi diren seme-alaben defentsaren gastuetara, haiek oinezko gisa edo lurreko ibilgailu motorgabeen gidari gisa jarritako prozeduretan. Estaldura hau izateko, Defentsa Juridikoaren Bermerako ezarritako guztia aplikatuko da.

→ **FUNTSAK AURRERATZEA.** Zirkulazio-istripuak direla-eta eragindako Kalteen Erreklamazioaren bermeari eragiten dioten ezbeharren kasuetan, Aseguru Etxeak aurreratuko du hirugarren batek aseguratutako ibilgailuari egindako kalte materialen kostua, 6.000 euro arte ezbehar bakoitzeko, istripuaren erantzulearen Aseguru Etxeak ordainketa egiteko adostasuna idatziz ematen duenean.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

- Zurekin batera eta zure kontura bizi den seme-alaba auto batek harrapatzen badu, oinezkoentzako pasabide batean, Aseguru Etxeak zure izenean egingo du dagokion erreklamazioa.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Ibilgailuak izandako kalteak

Estaltzen dira



→ Aseguratuaren edo gidariaren borondatez kanpoko kausa bortitz, bat-bateko eta ezusteko batek eragindako istripu baten ondorioz, aseguratutako ibilgailuak jasan ditzakeen kalteak, ibilgailua zirkulatzen nahiz geldi dagoenean, baita lehorretik garraiatzen duen bitartean ere.

→ Ibilgailua irauli nahiz erori delako edo beste ibilgailu batekin edo mugitzen ari den edo geldirik dagoen objektu batekin talka egin duelako sortutako kalteak.

→ Lurrak, zubiak eta errepideak hondoratu edo erori direlako ibilgailuak izandako kalteak.

→ Hirugarrenek egindako faltak edo asmo txarreko ekintzak ibilgailuari eragindako kalteak, baldin eta aseguratutako ekintza hori saihesteko ahalegin guztia egin badu.

→ Akats materialak, eraikuntzako akatsak edo kontserbazio txarra direla-eta aseguratutako ibilgailuak izandako kalteak; kasu horretan, istripuan izandako kalteak bakarrik konponduko dira, eta ez zati akastunak edo gaizki kontserbatuak.

→ Fenomeno atmosferikoek —harriabarrak edo kazkabarrak, esate baterako—ibilgailuari eragindako kalteak teknika espezializatu bidez konponduko dira, ahal den guztietan, herdoilaren aurkako tratamenduei kalterik egin gabe.

→ Desgaitasun fisikoak dituzten pertsonek gidatzeko modua izan dezaten ibilgailua egokitzeko elementu finkoek zirkulazio-istripu baten ondorioz izan ditzaketen kalteak.

→ Zirkulazio-istripu baten ondorioz aseguratutako ibilgailuak daramatzan haurrei eusteko sistema homologatuek izan ditzaketen kalteak.

Estaltzen dira



Aseguratuak eskatuta, estaldura alderdi hauetara mugatu ahal izango da:

Aseguratutako ibilgailuaren erabateko galerara. Ibilgailua guztiz galdutzat jotzeko, ibilgailuaren kalteen zenbatekoak ibilgailuaren salmenta-balioa gainditu behar du.

Aseguratutako ibilgailuak izandako kalteetara, ibilgailuekin, pertsonekin edo animaliekin talka egiteagatik, betiere pertsonak edo ibilgailuen nahiz animalien jabeak identifikatuta badaude.

Kalte guztien gaineko frankizia bat kontratatuzera. Frankizia hori poliza honen Baldintza Partikularretan finkatutako zenbateko finkoan edo proportzionalean kenduko da eta zenbateko hori aseguruak jarriko du zuzenean ibilgailuak jasaten duen ezbehar bakoitzeko.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

EZBEHARRAREN ONDORIOZ IBILGAILU ASEGURATUA ERABAT GALTZEN BADA, EZBEHARRA GERTATU DENETIK AURRERA KALTE-ORDAINAK ERAGINDAKO ESTALDURARIK GABE KONTRATATUTA GERATUKO DA POLIZA (KALTE PROPIOAK). ASEGURU-ETXEAK, KALTE-ORDAINA EMANEZ GERO, EZ DIO ASEGURATUARI ERAGINDAKO ESTALDURARI DAGOKION PRIMAREN INOLAKO ZATIRIK ORDAINDU BEHARKO (KALTE PROPIOAK).

Adibideak

- Zure ibilgailua aparkatuta zegoela, beste ibilgailu batek kolpea jo dio, eta kalteak eragin dizkio atzeko pilotuan.
- Gidatzen ari zinela, zure ibilgailua errepidetik atera eta zuhaitz baten kontra jo du. Horren ondorioz, kalteak eragin dizkiozu hegalari.
- Delitugile batek kalteak eragin ditu zure ibilgailuaren ate batean.

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako ibilgailua itsasoz nahiz airez garraiatzen ari den bitartean izandako kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuari bertan garraiatutako edo kargatutako nahiz bertatik deskargatutako objektuek eragindako kalteak, erabilera partikularreko automobila ez denean, edo, izanda ere, gauzak edo salgaiak garraiatzeko ibilgailua denean.
- Aseguratutako ibilgailuan garraiatutako salgaiei eragindako kalteak.
- Ibilgailu traktoreek, uzta-makinek, iraulkiek, brozel-kamioiek, hondeatzeko palek, hormigoi-kamioiek, konpresoreek, garabiek eta antzekoek eragindako istripuek sortutako kalteak, istripua industria-edo nekazaritza-lanetan zihardutela gertatu bada.
- Aseguratutako ibilgailuko motorreko ura izoztu delako gertatu diren kalteak.
- Ibilgailuaren pneumatikoei —gurpil-azalei, kamerei nahiz balbulei— eragiten dieten kalteak, erabateko galeren kasuetan izan ezik.
- Ezbehar bat gertatutakoan, konponketaren ondorioz ibilgailuak jasaten duen balio-galera.
- Musika-ekipoetan edo komunikazio-ekipoetan gertatutako kalteak, jatorriz inkorporatuak izan arren, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.
- Aseguratutako ibilgailuaren beste edozein osagarritan eragina duten kalteak, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.
- Aseguratutako ibilgailuak atoian eraman litzakeen atoei eta/edo karabanei eragindako kalteak.

Ez dira estaltzen



- Erabilera edo higadura normalagatik, pixkanakako balio-galeragatik, edo berezko akatsagatik ibilgailuan sortutako kalteak.
- Ibilgailuko zati akastunak edo gaizki kontserbatuak.
- Ibilgailu elektrikoen edo hibrido entxufagarrien kargaguneei eragindako kalteak, salbu eta polizaren Baldintza Partikularretan espresuki bermatuta badaude eta kargagunea ibilgailuaren jabea den aseguruaren jabetzakoa bada.

Adibideak

- Zirkulatu ari zinela, kolpe bat jo duzu zintarriaren aurka, eta kalteak eragin dizkiozu gurpilari, direkzioari... Pneumatikoak ez litzaizkizuke ordainduko.
- Zure ibilgailuak matxura bat izan du.
- Zure ibilgailua gidatzen ari zinela, kolpe bat jo diozu aurreko ibilgailuari, eta kalteak eragin dizkiezu zure ibilgailuko lainotako argiei: ez ziren seriekoak, eta ez ziren espresuki aipatzen polizako Baldintza Partikularretan.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Ibilgailuak izandako kalteak Bermea Zabaltzea

BALORAZIOA ZABALTZEA IBILGAILUA ERABAT GALTZEN DENERAKO

Estaltzen dira



→ Berritako balioaren 100eko 100ari dagokion kalte-ordaina, edo ibilgailu berri bat jartzea, markak oraindik komertzializatzen badu, ezbeharrak gertatzen den unean aseguratutako ibilgailuak hiru urte egin ez baditu lehen aldiz matrikulatu zen datatik.

→ Gainerako kasuetan, "ibilgailuaren Kalte, Lapurreta, Sutea, Kalte atmosferiko eta Animaliekiko talken Bermeak zabaltzeak estalitako ezbeharrak eragindako kalteen balorazioa" atalean zehaztutakoa erabiliko da, aseguratutako ibilgailuaren kalteak baloratzeko.

→ Zirkulazio-istripu baten ondorioz, aseguruaren jabetzakoak diren eta ibilgailuak une horretan garraiatzen dituen ondasunek izan ditzaketen kalteak, baldin eta ez badute izaera elektronikorik (adib., ordenagailuak, lokalizazioko eta telefoniako ekipamenduak) eta laneko erreminta edo tresna ez badira, 600 euro arteko mugarekin.

ZENBATEKO HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

EZBEHARRAREN ONDORIOZ IBILGAILU ASEGRATUA ERABAT GALTZEN BADA, EZBEHARRA GERTATU DENETIK AURRERA KALTE-ORDAINAK ERAGINDAKO ESTALDURARIK GABE KONTRATATUTA GERATUKO DA POLIZA (KALTE PROPIOEN HEDADURA ETA KALTE PROPIOAK). ASEGRU-ETXEAK, KALTE-ORDAINA EMANEZ GERO, EZ DIO ASEGRATUARI ERAGINDAKO ESTALDURARI DAGOKION PRIMAREN INOLAKO ZATIRIK ORDAINDU BEHARKO (KALTE PROPIOEN HEDADURA ETA KALTE PROPIOAK).

Adibideak

- bilgailuarekin zirkulatzen ari zinela izandako ezbehar baten ondorioz, erabateko ezbeharra gertatu da. Autoak bi urte eta erdi dituzenez, ibilgailuaren berritako balioaren 100eko 100aren kalte-ordaina emango da.
- Lehen aldiz 2002ko urtarrilean matrikulatutako zure ibilgailuak su hartu du, eta ezin da konpondu; haren salmenta-balioaren (ibilgailuak sutea gertatu aurreko unean bertan izango zuen salmenta-prezioaren) % 130 ematen da kalte-ordain gisa.

Ez dira estaltzen



- Elementu elektronikoek, adibidez, ordenagailuek, lokalizazioko eta telefoniako ekipamenduek eta laneko erreminta eta tresna direnek, izandako kalteak.

Adibidea

- Ibilgailu batek zure ibilgailuarekin talka egin du, eta talka horren ondorioz zure GPS nabigatzaileak kalteak jasan ditu, baita maletategian zeneraman ordenagailu eramangarriak ere. GPSak eta ordenagailu eramangarriak jasandako kalteak ez lirateke ordainduko.

IBILGAILUAREN GARBIKETA, ZAURITUAK GARRAIATZEAGATIK

Estaltzen dira



→ Zaurituak osasun-zentro batera presaka eramateagatik sortutako kalteak direla-eta aseguratutako ibilgailua garbitzeko behar diren gastuak.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

GILTZEN KOPIA

Estaltzen dira



→ Aseguratutako ibilgailuaren giltzak galduz gero, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu giltza berriak egiteko beharrezkoak diren gastuak, ordainagiriak aurkeztu ostean.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Lapurreta

Kontuan hartu:

Lapurreta gertatzen da hirugarren batzuek aseguratutako ibilgailua osten dutenean, gauzetan indarkeria erabiliz.

Estaltzen dira



→ Ibilgailu osoa ostea.

→ Aseguratutako Ibilgailuaren zati finakoak osatzen dituzten piezak ostea, osagarritzat hartzen ez badira, eta osagarri horiek espresuki aseguratuta egon ezean.

→ Aseguratutako ibilgailuari egin zaizkion kalteak, ostu izanaren ondorioz hirugarren batzuen eskuetan egon den bitartean eta, halaber, delitua egitean (edozein eratan eginda ere) sortutako kalteak.

EZBEHARRAREN ONDORIOZ IBILGAILU ASEGURATUA ERABAT GALTZEN BADA, EZBEHARRA GERTATU DENETIK AURRERA KALTE-ORDAINAK ERAGINDAKO ESTALDURARIK GABE KONTRATATUTA GERATUKO DA POLIZA (LAPURRETA). ASEGURU-ETXEAK, KALTE-ORDAINA EMANEZ GERO, EZ DIO ASEGURATUARI ERAGINDAKO ESTALDURARI DAGOKION PRIMAREN INOLAKO ZATIRIK ORDAINDU BEHARKO (LAPURRETA).

LAPURRETAREN SALAKETA

Aseguratuak aseguratutako ibilgailuaren edo bere piezetako edozeinen lapurretaren berri eman beharko die agintari eskudunei, eta Aseguru Etxearen izena jakinarazi beharko die.

IBILGAILUA BERRESKURATZEAREN ONDORIOAK

Ibilgailua berreskuratzen bada lapurretaren ondorengo berrogei egunen barruan edo Baldintza Partikularretan zehaztutako epearen barruan, aseguratuak hartu egin beharko du, eta Aseguru Etxeak ordaindu beharko du lapurretaren ondorioz izandako kalteen konponketa.

Ibilgailua berreskuratzen bada epe hori igaro ondoren eta kalte-ordaina eman eta gero, Aseguru-etxearen jabetzapean geratuko da, eta aseguratuak konpromisoa hartuko du jabetza Aseguru Etxearen alde —edo honek izendatutako pertsona fisiko edo juridiko baten alde— transferitzeko sinatu behar diren dokumentu guztiak sinatzeko, ez baldin badu bere ibilgailua berreskuratu nahi; berreskuratu nahi izanez gero, berriz, lehen jasotako kalte-ordaina itzuli beharko du, ibilgailua berreskuratu eta hamabost eguneko epean.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibidea

- Automobila aparkatuta zegoela, ostu egin dute, eta hainbat kalte eragin dizkiote.

Ez dira estaltzenn



- Inoiz ez da kalte-ordainik emango urratu, kolpe eta antzeko beste kalteengatik, ez badaude, zuzen-zuzenean, ibilgailua osteko egindako saioarekin erlazionatuta.
- Ibilgailuaren zati finkoak osatzen ez dituzten piezak ostea.
- Musika-ekipoetan edo komunikazio-ekipoetan gertatutako kalteak, jatorriz inkorporatuak izan arren, ez baldin badira espresuki bermatu polizako Baldintza Partikularretan.
- Aseguratutako ibilgailuaren osagarrietan eragina duten kalteak, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik. Osagarritzat hartzen dira ibilgailua fabrikatik ateratzean oinarritzko modeloak ez dituen hobekuntza edo apaindurako elementuak.
- Giltzak eta ibilgailua urrutitik irekitzeko aginteak, ibilgailuko zati finkotzat hartzen ez direlako.
- Ibilgailuaren lapurretak, lapurreta horien egile, konplize edo estaltzaileak aseguruaren familiartekoak —odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren graduraino— edo horietakoren baten mendekoak edo soldatakoak izan badira.
- Aseguru Etxeak ez du izango ezbeharraren ondorioak ordaintzeko beharrik, ez beharra aseguru-hartzailearen, aseguruaren, gidariaren edo haien mendeko pertsonen edo haiekin bizi direnen zabarkeria larriarengatik gertatu denean.
- Ibilgailu elektrikoan edo hibrido entxufagarrien kargaguneei eragindako kalteak eta osteak, salbu eta polizaren Baldintza Partikularretan espresuki bermatuta eta oste badaude eta kargagunea ibilgailuaren jabea den aseguruaren jabetzakoa bada.

Adibideak

- Ibilgailua lapurtu dute, eta kalteak eragin dizkiote musika-ekipoari (ez zen ekipoaren berri eman poliza sinatzean).
- Ibilgailua aparkatuta zegoela atzerako ispilua kendu nahiz puskatu dute. Ez da ordainduko ez atzerako ispilua ez bertan egindako kalteak ere.
- Ibilgailuaren soinu-ekipamenduko aurrealde ateragarria lapurtzea. Ez da estaltzen ez delako horren elementu finkoa.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Sutea

Estaltzen dira



→ Sute edo leherketen ondorioz gertatutako kalteak, ibilgailua zirkulatzen ari dela, geldirik dagoela nahiz garraioan dagoela gertatutakoak, edozein dela ere eragilea; baita ere ibilgailuan instalatutako aparatu elektrikoei eta osagarriei eragiten dietenak, zirkuitulabur baten ondorioz eta errekontzaren beraren ondorioz, nahiz eta suterik ez gertatu, betiere kalte horiek elektrizitatearen eraginez gertatzen badira.

→ Kargaguneetako zirkuitulaburraren eta errekontzaren beraren ondorioz sortutako kalteak, baita kargagune horiek polizaren Baldintza Partikularretan osagarri bermatu gisa deklaratura daudenean ere.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

EZBEHARRAREN ONDORIOZ IBILGAILU ASEGRATUA ERABAT GALTZEN BADA, EZBEHARRA GERTATU DENETIK AURRERA KALTE-ORDAINAK ERAGINDAKO ESTALDURARIK GABE KONTRATATUTA GERATUKO DA POLIZA (SUTEA). ASEGRU-ETXEAK, KALTE-ORDAINA EMANEZ GERO, EZ DIO ASEGRATUARI ERAGINDAKO ESTALDURARI DAGOKION PRIMAREN INOLAKO ZATIRIK ORDAINDU BEHARKO (SUTEA).

Adibideak

- Motorra gehiagi berotu da, su hartu du, eta ibilgailuak ere su hartu du.
- Aparkatuta zegoen ibilgailuaren bila joan zarenean, ezezagun batek su eman dio.
- Zure ibilgailua aparkatuta zegoela, su eman dioten zabor-ontzi bateko garrek eragin diote.

Ez dira estaltzen



→ Musika-ekipoetan edo komunikazio-ekipoetan gertatutako kalteak, jatorriz inkorporatuak izan arren, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.

→ Aseguratutako ibilgailuaren osagarrietan eragina duten kalteak, polizaren Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.

→ Suteek eragindako kalteak, kalte horien egile, konplize edo estaltzaileak aseguruaren familiartekoak —odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren graduraino— edo horietakoren baten mendekoak edo soldatakoak izan badira.

→ Ezbeharraren ondoriozko kalteak, ezbeharra aseguru-hartzailearen, aseguruaren, gidariaren edo haien mendeko pertsonen edo haiekin bizi direnen zabarkeria larriarengatik gertatu denean.

→ Zirkulazio-istripu baten ondoriozko talkak eragindako kalteak, talka horrek sute bat sortu arren.

→ Ibilgailu elektrikoen edo hibrido entxufagarrien kargaguneei eragindako kalteak, salbu eta polizaren Baldintza Partikularretan espresuki bermatuta badaude eta kargagunea ibilgailuaren jabea den aseguruaren jabetzakoa bada. Espresuki osagarri bermatu gisa deklaraturako kargaguneeen kasuan, ez dira estaliko zirkuitulaburretik eta errekuntzatik eratorritako kalteak, baldin eta kargagunean bertan badute jatorria.

Adibideak

- Zure ibilgailuak su hartu du, eta jatorriz zekarren CD irratia hondatu da, baina poliza sinatzerakoan ez zen osagarri horren berri eman. Ibilgailuaren kalteak estalita egongo lirateke, baina CD irratia ez.
- Ibilgailuaren jabea den enpresako langile batek eman dio su, nahita, aseguratutako ibilgailuari.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Beirak

Estaltzen dira



→ Aseguratutako ibilgailuko beirak konpontzeko edo birjartzeko kostua, hautsi badira, beira horiek konpondu edo ordeztuak izan ondoren. Beirak haustearen kausak istripuzko, bat-bateko, ustekabeko eta ezustekoa izan behar du, aseguratzailearen edo gidariaren borondatez kanpoko.

→ Aseguratutako ibilgailuaren eguzki-sabaiko edo sabai panoramikoko kristala konpontzeko edo birjartzeko kostua, hautsi bada.

→ Beirak jartzeko gastuak.

→ Ibilgailuak eraman ditzakeen eta beira-plakak apurtzearen ondorioz kaltetuak izan diren eguzki-xafiak konpontzearen edo ordeztearen kostua.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibideak

- Zirkulatzen ari den bitartean, harri batek aseguratutako ibilgailuaren aurreko beira hautsi du.
- Delitugile batek zure ibilgailuaren gidariaren beira hautsi du, irratia lapurtzeko. Beira estalita egongo litzateke.

Ez dira estaltzen



- Beira-plakak ez diren ibilgailuko beirazko bestelako objektuek —argiek, pilotuek, intermitenteek, ispiluek, eta abarrek— jasandako kalteak edo hausturak.
- Beiren gainazalari egindako marradurak, altxatuak edo urratuak, eta haustura ez diren bestelako kalteak.
- Beira-plakak muntatu nahiz desmuntatzean eragindako hausturak, eta aseguratutako ibilgailua konpontzeko lanean eragindakoak.
- Aseguratutako ibilgailuak tiratutako atoiaren beira eta kristal guztiak, edozein motatakoak izanda ere.

Adibidea

- Aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatzen ari zinen bitartean, ibilgailuko argi bat hondatu da. Berme honek ez luke kalte hori estaliko.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Kalte atmosferikoak eta animaliekin talka egitea

Estaltzen dira



→ Harriabarraren, elurraren, tximistaren, haizearen ondorioz edo lurrak, zubiak edo errepideak hondatzearen ondorioz aseguratutako ibilgailuan eragindako kalteak. Kalte horiek teknika espezializatuen bidez konponduko dira, ahal den guztietan, herdoilaren aurkako tratamenduei kalterik egin gabe.

→ Aseguratutako ibilgailuak animaliekin talka egiteagatik izandako kalteak. Estalita egoteko, ezinbestekoa da talka animalia batekin gertatu dela agerian uzten duen polizia-atestatua egotea.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

EZBEHARRAREN ONDORIOZ IBILGAILU ASEGRATUA ERABAT GALTZEN BADA, EZBEHARRA GERTATU DENETIK AURRERA KALTE-ORDAINAK ERAGINDAKO ESTALDURARIK GABE KONTRATATUTA GERATUKO DA POLIZA (KALTE ATMOSFERIKOAK EDO TALKA ANIMALIEKIN, DAGOKIONA). ASEGRU-ETXEAK, KALTE-ORDAINA EMANEZ GERO, EZ DIO ASEGRATUARI ERAGINDAKO ESTALDURARI DAGOKION PRIMAREN INOLAKO ZATIRIK ORDAINDU BEHARKO (KALTE ATMOSFERIKOAK EDO TALKA ANIMALIEKIN, DAGOKIONA).

Adibideak

- Zure ibilgailua gidatzen ari zinela, basurde bat sartu da bat-batean errepidean eta kalteak eragin ditu ibilgailuan; ezbeharraren zirkunstantzia horietan gertatu dela egiaztatu du agente batek.
- Kazkabarraren ondorioz zure ibilgailuak mailatuak izan ditu karrozerian.

Ez dira estaltzen



- Fenomeno atmosferikoen ondoriozko kalteak, ezohiko gertakarien ondoriozko galerengatik Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren kalte-ordaina jaso dezaketenak.
- Errepidean ura, izotza, elurra edo lainoa egotearen ondorioz norberaren ibilgailuak talka egitearen ondorioz, aseguratutako ibilgailuan sortutako kalteak, edo haizearen ondorioz talka egitearen ondoriozkoak.
- Aseguratutako ibilgailuan garraiatutako salgaiei eragindako kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuko motorreko ura izoztu delako gertatu diren kalteak.
- Ibilgailuaren sarrerako sisteman ura sartzeak sortutako kalteak.
- Ibilgailuaren pneumatikoei —gurpil-azalei, kamerei nahiz balbulei— eragiten dieten kalteak, erabateko galeren kasuetan izan ezik.
- Ezbehar bat gertatutakoan, konponketaren ondorioz ibilgailuak jasaten duen balio-galera.
- Musika-ekipoetan edo komunikazio-ekipoetan gertatutako kalteak, jatorriz inkorporatuak izan arren, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.
- Aseguratutako ibilgailuaren beste edozein osagarritan eragina duten kalteak, polizako Baldintza Partikularretan espresuki bermatzen direnak izan ezik.
- Aseguratutako ibilgailuak atoian eraman litzakeen atoei eta/edo karabanei eragindako kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuari egin zaizkion kalteak, animalia batekin zuzenean talka egin ez badu, edo egin badu eta ez badago hori agerian uzten duen polizia-atestaturik.

Ez dira estaltzen



→ Animaliek sortutako kalteak, hartzailearen, aseguratuaren, jabearen edo gidariaren jabetzakoak nahiz odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren gradurainoko aurrekoen ezkontideen edo familiartekoen jabetzakoak direnean.

→ Ibilgailu elektrikoen edo hibrido entxufagarrien kargaguneei eragindako kalteak, salbu eta polizaren Baldintza Partikularretan espresuki bermatuta badaude eta kargagunea ibilgailuaren jabea den aseguratuaren jabetzako bada.

Adibidea

→ Zure ibilgailua gidatzen ari zinela, basurde bat errepidera irten eta ibilgailuarekin talka egin ez arren, hura saihesteko maniobratzean errepideko babes-hesiarekin talka egitearen ondorioz ibilgailuak kalteak izan ditu.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Pneumatikoetako Kalteak

Estaltzen dira



→ Ibilgailuaren pneumatikoak konpontzea, gurpila zulatu edo lehertu delako kanpoko kausa bortitz, bat-bateko eta aseguratzailearen zein gidariaren borondatez kanpoko batek eragindako istripuaren ondorioz kalteak jasan baditu.

→ Pneumatikoa konpondu ezin denean, kaltetutako pneumatikoaren birjarpen-balioari dagokion kalte-ordaina emango da, pneumatikoaren higadura-graduaren eta antzinatasunaren arabera.

→ Pneumatikoak jartzeko gastuak, ordeztu behar badira.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA.

Adibideak

- Zure ibilgailua gidatzen ari zarela, errepidean zegoen iltze batek eskuineko atzeko gurpila zulatu dizu. Kaltetutako pneumatikoa konpon badaiteke, Aseguru Etxeak estaliko du konponketaren kostua.
- Zure ibilgailua gidatzen ari zarela, bazterra jo duzu eta aurreko eskuineko gurpila zulatu da. Aseguru Etxeak Ezbeharraren unean pneumatikoak duen balioaren pareko zenbatekoarekin emango du kalte-ordaina.

Ez dira estaltzen



- Pneumatikoak edo haien zatiak lapurtzea, hala nola balbula edo balbulen tapoiak.
- Estetika hutsezko urratu zein kalteak, ibilgailuaren zirkulaziorako arriskurik ez badakarte.
- Pneumatikoaren hagun-babesleen kalteak.
- Ordezko gurpilaren kalteak.
- Aseguratutako ibilgailuak atoian eraman litzakeen atoen eta/edo karabanen pneumatikoei eragindako kalteak.
- Pneumatikoen konponketa-kitak.
- Ezbeharraren ondoriozko kalteak, ezbeharra aseguru-hartzailearen, aseguratuaren, gidariaren edo haien mendeko pertsonen edo haiekin bizi direnen zabarkeria larriarengatik gertatu denean.

Adibideak

- Ibilgailua garajeen aparkatuta zegoela, lau gurpilak lapurtu dizkiote.
- Aparkatzean urratu bat egiten diozu pneumatikoari eta horren hagun-babeslea kaltetzen duzu, baina ez dago etorkizuneko eztanda batek eragin dezakeen segurtasun-arriskurik edukitzeko moduko kalterik.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Istripu Pertsonalen Asegurua ibilgailuaren gidariarentzat

Aseguratutako ibilgailuaren gidariak jasandako kalte pertsonalen kalte-ordaina estaltzen da, istripua aipatutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz gertatu bada. Ibilgailu aseguratua kargatzeko prozesuan korronte elektrikoarekin zuzeneko kontaktuan egoteagatik ibilgailuaren gidariak jasandako kalte pertsonalengatik kalte-ordainaren ordainketa ere estaliko da, ibilgailu aseguratua ibilgailu elektrikoa edo hibrido entxufagarria denean.

Aseguratutzat hartzen da, aseguru honetan, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duen ibilgailua gidatzen duen pertsona.

Istriputzat hartzen da gorputz-lesioa, kanpoko kausa bortitz, bat-bateko eta aseguruaren asmoez bestelako batek eragiten duenean, eta behin-behineko ezintasuna nahiz ezintasun iraunkorra edo heriotza dakarrena.

Aseguru honek bermatzen dituen kalte-ordainak aseguruari dagokion beste edozeinekin bateragarriak dira, berme honetan arautzen diren osasun-laguntzako prestazioak izan ezik.

Aseguru honetatik sortutako kalte-ordainak finkatzeko, ez dira kontuan hartuko ez aseguruaren lanbidea eta ez gainerako inguruabarrak ere, baldintza hauetan azaltzen ez badira.

Aseguratuak preskripzio medikoak jarraitu beharko ditu, eta horien berri eman beharko dio Aseguru Etxeari. Aseguru Etxeak izendatutako profesionalak, gainera, beharrezko azterketa medikoak egin diezazkiokete.

Aseguratuak nahita eragiten badu istripua, Aseguru Etxea aske geratuko da bere beharrak betetzetik.

Aseguru-etxeak ez du erantzungo ibilgailuaren gidariak ibilgailua kargatzeko prozesuan jasandako kalte pertsonalen aurrean, ibilgailua elektrikoa edo hibrido entxufagarria denean, baldin eta kalte pertsonal horien jatorria eroriko bat edo objektuekin talka egitea denean.

Lesioak larrituko balira lesionatuaren erruz —preskripzio medikoak jarraitu ez dituelako—, Aseguru Etxeak ez luke inolako erantzukizunik izango.

BERME HAU ORDAINTEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA.

HERIOTZA-BERMEA

Estaltzen dira



→ Aseguratutako ibilgailuaren gidariaren heriotza dela-eta, onuradunari kalte-ordaina ematea. Kalte-ordain hori Baldintza Partikularretan ezarritako kapitalak osatuko du.

Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratutako ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-istripuan gidaria bere ezkontidearekin eta/edo izatezko bikotekidearekin batera hiltzen bada eta gidariak seme-alaba adingabe, ezindu edo bere kontura bizi den bat badu.

Ez dira estaltzen



→ Hamalau urtetik beherakoen edo pertsona ezgaituen heriotzen kalte-ordainak.

EZINTASUN IRAUNKORRAREN BERMEA

Estaltzen dira



→ Aseguratuaren Ezintasun Iraunkorraren kalte-ordaina. Hala dela ulertzen da izendatutako peritu medikoek egindako irizpenak ez dueneansendatzea aurreikusten. Kalte-ordainak kalkulatzeko, ezintasuna egiaztatzen duen ziurtagiri medikoaren edukia hartuko da kontuan, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Ikuskatzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, Lege horri irailaren 22ko 35/2015 Legeak, zirkulazio-istripuetan pertsonak jasandako kalte eta galerak baloratzeko sistema erreformatzen duenak, eranskin gisa gehitutako 2.A.1 taularekin bat etorritik ("Baremo medikoa"), bigarren atalean ezarritakoa alde batera utziz: "kapitulu berezia: kalte estetikoa".

Aipatutako kalkulu horren ondoriozko puntu guztien zenbatekoa baldintza partikularretan jasotako kapitalaren zifrari aplikatuko zaio, portzentaje gisa, eta horren emaitza guztira ordainduko den kalte-ordainaren zenbatekoa izango da.

Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratuak ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-istripua dela eta aseguratuari III. mailako mendekotasuna aitortzen bazaio erakunde eskudunak emandako ebazpenaren bidez abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak) ezarritakoarekin bat.

Adibidea

→ Sekuelen puntuak 12 badira guztira, eta kontratatutako kapitalaren muga 20.000 eurokoa, horrek 2.400 euroko prestazioa sortuko du (20.000 euroren % 12a).

Ez dira estaltzen



→ Kalte estetikoa, hala nola orbainak, kanpo-deformazioak edo legezko baremo medikoan kalte estetikoaren kapitulu berezian sar daitezkeen beste edozein motatako sekuelak.

OSASUN-LAGUNTZAKO BERMEA

Estaltzen dira



→ Lesionatua sendatzeko beharrezkoak diren gastuen ordainketa, eta, nolana ere, hitzartutako mugen barruan nahitaezkoak diren larrialdiko laguntzak.

→ Aseguru Etxeak espresuki onartutako medikuek eman beharko dute laguntza medikoa; bestela, aseguratuak bere gain hartuko du berme honi egozgarri zaizkion gastuen erdia. Hala eta guztiz ere, Aseguru Etxeak osorik ordainduko ditu larrialdiko laguntzatik edo lehen sorospenetatik eratorritako gastuak, laguntza nork eman duen kontuan hartu gabe.

→ Osasun-laguntzako gastuen ordainketa bost eguneko epean egingo da gehienez ere, Aseguru Etxeak gastu horiek egiaztatzen dituzten fakturak jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita.

Berme honek hirurehun eta hirurogeita bost eguneko iraupena izango du gehienez ere, istripua izandako egunetik kontatzen hasita.

Ez dira estaltzen



→ Osasun-laguntzako gastuak, nahitaezko aseguru batek estaltzen baditu, Automobilen aseguruan izan ezik, baldin eta zenbatekoa Zirkulazioko Arriskuen Bermearen Funts Nazionalak onartu gabeko zentroetan egindako osasun-prestazioetarako finkatutako muga baino handiagoa bada; kasu horretan, Aseguru Etxeak ordainduko ditu gastuok, muga horretatik hasi eta polizan ezarritako mugaraino.

Aseguru Etxea subrogatu ahal izango da, kasua denean, aseguratuak hirugarren baten aurka dituen eskubideetan, Osasun Laguntzako estaldurarengatik egindako ordainketen ondorioz.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Istripu Bermea zabaltzea ibilgailuaren gidariarentzat

Estaltzen dira



→ Ezbeharra aseguratutako ibilgailua gidatzean gertatuz gero.

Kalte-ordainak ordaintzea, Baldintza Partikularretan ezarritako kapital-mugarekin, aseguratutako ibilgailuaren gidariaren heriotza edo ezintasun absolutuaren kasuetan, ibilgailu horrek izandako zirkulazio-istripu baten ondorioz. Gidari horri ezin zaio, istripuan zerikusia duten erantzukizunen arabera, hirugarren ibilgailu baten Nahitaezko eta/edo Borondatezko Aseguru baten kontura kalte-ordainik ordaindu, ezta partzialki bada ere.

Kalte-ordainaren objektua den kapitala handitu egingo da zenbateko gehigarri batekin mendeko seme-alaba bakoitzeko, polizako Baldintza Partikularretan ezarritako muga arte.

Estaldura honen arabera ordaintzekoa den kapitala, Istripu Pertsonalen Aseguruaren estalduratik ibilgailuaren gidariarentzako ateratzen denari metatu ahal izango zaio.

Hauek hartuko dira mendeko seme-alabatzat: 16 urtetik beherako seme-alabak, 16 eta 24 urte arteko seme-alabak, eta seme-alaba minusbaliatuak edozein adin izan arren, betiere, aseguratuko ibilgailuaren gidariarekin edo haren kontura bizi badira, eta ordaindutako lanik egiten ez badute, edo Lanbide arteko Gutxieneko Soldata gainditzen duen ondasun-errentarik edo pentsiorik jasotzen ez badute.

Ezintasun absolututzat hartuko da, aseguratutako ibilgailuaren gidaria edozein lanbide edo ofiziotarako erabat desgaitzen duen ezintasun iraunkorra.

→ Ezbeharra aseguratutakoa ez den ibilgailua gidatzean gertatuz gero: Polizan deklaraturako ohiko gidariaren estaldura zabaldu egiten da, eta Istripu Pertsonalen Aseguruaren estaldurari dagozkion Heriotza eta Ezintasun Iraunkorreko bermeak aplikatuko zaizkio.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA.

Ez dira estaltzen



→ 14 urtetik beherakoen edo pertsona ezgaituen heriotzengatiko kalte-ordainak.

→ Aseguratutakoa ez den ibilgailua gidatzean izandako gertaeren ondoriozko kalteak, ibilgailu hori erabilera partikularreko automobila ez denean..

→ Aseguratutakoa ez den ibilgailua gidatzean izandako gertaeren ondoriozko kalteak, baldin eta ibilgailuaren titularrak aseguru-hartzailea, aseguraturua, jabea edo aseguraturako ibilgailuaren polizan deklaraturia dagoen gidaria nahiz aurrekoen ezkontideak edo familiartekoak badira, odol bidezko edo ezkontza bidezko hirugarren graduraino.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Bidaiako Laguntza (ibilgailuen BGM ≤ 3.500 kg)

EZBEHARRAREN JAKINARAZPENA.

Aseguratuak ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta ezbeharra behar bezala kudeatzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan eman ahal izango da; hurrengoak dira harremanetarako bideak:

Telefonia	900 38 08 38
Atzerritik	00 34 944 05 14 12

LURRALDE-EREMUA

Berme honetako prestazioak aplikagarriak dira Espainia osoan, frankizia kilometrikorik gabe —mediku-gastuen ordainketa izan ezik—, eta atzerrian Europako herrialde guztietan eta Mediterraneo itsasoaren ertzeko herrialdeetan. Pertsonen laguntzarako bermeak munduko herrialde guztietan izango dira baliozkoak.

ALDEZ AURRETIKO KONFIANTZA

Berme honek prestazio-multzo bat ematen du, alde zurretiko konfiantza dela medio aplikatu daitekeena, aseguratuek Espainia barnean edo atzerrian egiten dituzten joan-etorrietan gerta litezkeen hainbat eta hainbat arazotarako.

BERMEAREN NORAINOKOA

Berme honetan, aseguratutzat hartzen da bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa, Automobilen Aseguruaren polizaren hartzailea, eta baita haren ezkontidea eta lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaideak ere, bizileku berean bizi diren eta bere ardurapean dauden bitartean. Prestazioak aseguru horiei aplikatuko zaizkie, elkarrekin bidaiatu ez arren.

Joan-etorri batean aseguratutako ibilgailuan aseguruarekin eta/edo aurreko puntuan definitutako aseguratutako pertsonekin batera doan pertsona fisikoa.

Aseguratutako ibilgailua polizako Baldintza Partikularretan izendatutakoa izango da, betiere bidaiarien garraio publikorako ibilgailua, merkantzien garraiorakoa edo 3.500 kg-tik gorako gehieneko pisu baimendua duen ibilgailua ez bada.

Hiru hilabetetik beherako iraupena duten desplazamenduetan bakarrik aplikatuko dira ondoren azaltzen diren bermeak.

Aseguru Etxeak zuzenean emango ditu prestazio horiek, edo aseguruaren eta bere arteko aurretiazko akordio bidez.

Aseguru Etxeak gero ez du parte hartuko aseguruak bere ekimenez ordaindutako gastuetan. Hala ere, bere garaian Aseguru Etxearekin harremanetan jartzeko aukerarik izan ez eta arrazoizko ekimenak hartu dituen aseguratua ez zigortzeko, gastuak itzultzeko aukera aztertuko du Aseguru Etxeak, behar diren frogagiriak aurkeztuta, berak zuzenean parte hartu izan balu ordainduko lituzkeen gastuen mugara arte.

Laguntzarako bermeak inoiz ere ez dira aplikatuko zerbitzu publikoen ordez, bereziki larrialdi-laguntzetan.

ABUSUZKO PORTAERA

Aseguru Etxeak erabakitzen badu aseguruaren batek abusuz edo doluz jokatu duela, jokabide horren ondorioz zuzenean sortutako gastuak erreklamatu ahal izango ditu, osorik nahiz zati batean.

KASU MEDIKOAK

Hitzarmen honen espiritua da aseguruaren eskaerei berehala erantzutea, arazo zehatzei aurre egin beharrean daudenean, aldeztutako konfiantzan oinarrituta, atarikoan azaldu bezala.

Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu medikuen irizpideen arabera premiazko beharrezko mediko baten ondoriozko gastu mediko hauek: kontsultak, tratamenduak, aparatu medikoak, optikoak, protesiak eta gastu odontologikoak.

Premiazko beharrezko medikotzat hartuko dira osasun-arazo ustekabeko eta bat-bateko baten ondoriozko beharra, gaixotasuna zein istripua dela-eta, eta aseguratua berehala artatzeko beharra sortzen duena edo gehienez 6 orduren buruan artatzeko beharra, ondorioak larriagotu edota bizitza bera ere arriskuan egon daitekeelako. Aseguru-etxeak esku hartuko du, halaber, gaixotasun mentala edo kronikoa izanik bat-batean krisi akutu bat sortzen bada. Kanpoan geratuko dira espresuki estetiko hutsak diren tratamenduak.

AURRERATUTAKO ZENBATEKOAREN FROGAGIRIAK ETA ITZULKETA

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du bermea aplikatzea eragin duen gertakariaren txosten eta proba medikoak eta frogagiriak erreklamatzeko eskubidea, baita, kasua denean, lapurretaren salaketaren kopia erreklamatzekoa ere.

Era berean, zorra aitortzea, edo abala nahiz bestelako bermeren bat eskatu ahal izango du, funtsak aurreratzen dituenean, ondokoetan ezarritakoa aplikatuz: Atzerriko mediku-gastuen ordainketa, Medikamentuak eta betaurreko optikoak bidaltzea pertsoneri laguntzeko; Laguntza mekanikoa eta ordezeko piezak bidaltzea ibilgailuei nahiz bidaiariei laguntzeko; Funtsak aurreratzea eta Fidantza penala edo isunak aurreratzea Laguntzan, izapide judizialen kasuan.

Aurreratutako dirua gehienez ere hilabeteko epean itzuli beharko zaio Aseguru Etxeari, edozein izanda ere emandako prestazioa.

SUBROGAZIOA

Bere gain hartzen dituen gastuei buruz, Aseguru Etxea subrogatuta geratuko da —Aseguru Kontratuko Legeak 43. artikuluan ezarritako baldintzetan—, aseguratuek ezbeharraren erantzuleetako edozeinen kontra izan ditzaketen eskubide eta akzioei dagokienez.

Era berean, osasun-laguntzako aseguru-kontratu baten, gizarte-segurantzaren edo beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturen bitartez, aseguruak poliza honetan aurreikusten diren bermeak estalita baditu —osorik nahiz zati batean—, erakunde horiek estali duten gastuen zatia Aseguru Etxeari itzuli beharko dio aseguruak.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

PERTSONEENTZAKO LAGUNTZA

Pertsona gaixo eta zaurituei laguntzea

Estaltzen dira



→ **Pazienteak aberriratzea.** Medikuek erabakitako premia izanez gero, Aseguru Etxeko medikuek erabakiko dute, zauritua edo gaixoa artatzen duten medikuekin ados jarrita, zirkunstantzien arabera, aseguratua hauetako batera eramatea: ospitale-zentro egokiago batera, bere bizilekutik hurbilago dagoen ospitale-zentro batera, nahiz bere etxera, horretarako baliabide egokienak erabiliz: anbulantzia, trena, helikopteroa, linea erregularreko hegazkina, osasun-hegazkin berezia edo beste edozein baliabide, egoera horretan egokia bada, eta medikuek etengabe zainduta, hala behar izanez gero.

Kasu horietan guztietan, Aseguru Etxeak antolatuko du aberriratzea, eta bere gain hartuko ditu gaixoa edo zauritua bere bizilekuraino eramateko gastuak, baita Aseguru Etxeko medikuek aseguratua bizilekuraino aberriratu aurretik tarteko garraio bat beharrezkotzat jotzen badute ere.

Ahal den guztietan, aukera emango zaio familiako kide bati gaixoarekin edo zaurituarekin batera joateko, lekualdatzen ari den bitartean.

→ **Hoteleko egonaldia luzatzeagatik sortutako gastuak.** Ospitalean egon ondoren, hoteleko egonaldia ustekabean luzatu behar izanez gero, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu ostatu-gastuak, eta logelari eta gosariari dagozkienak, gau bakoitzeko 60 €-ko mugarekin eta 10 egunez gehienez ere.

→ **Familiako kide bat bertan egotea.** Lekuz aldatu ezin den aseguratua, gaixoa edo zauritua, ospitalean dagoenean eta ospitalean egin beharreko denbora hasiera batean 5 egun baino gehiagokoa denean, Aseguru Etxeak aseguruaren familiarteko bati joan-etorriko garraioa jarriko dio eskura, gaixoarekin egon ahal izan dadin.

Aseguru-etxeak bere gain hartuko ditu familiartekoaren hoteleko egonaldi-gastuak, gau bakoitzeko 60 €-ko mugarekin eta 10 egunez gehienez ere.

→ **Atzerriko mediku-gastuen ordainketa.** Gizarte Segurantzak eta/edo aurreikuspeneko beste edozein erakundek emandako prestazioen osagarri gisa, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu gastu mediko, kirurgiko, farmazeutiko eta ospitaleratzekoak, gehienez ere 6.500 €-ra arte ezbehar bakoitzeko.

Estaltzen dira



Gastu medikoak Gizarte Segurantzak edo beste edozein aseguru-kontratuk estaltzen baditu eta soil-soilik aseguruak bidaian zehar gastu horiek ordaindu behar izan dituzenean, Aseguru Etxeak funtsak aurreratzeko hartuko du parte, eta gero itzuli egin beharko zaizkio zenbateko horiek.

Halakoetan, aseguruak konpromisoa hartzen du erakunde horien aurrean behar diren izapideak egiteko, gastu horien zenbatekoa berreskuratzeko eta Aseguru Etxeari itzultzeko.

→ **Medikamentuak eta betaurreko optikoak bidaltzea.** Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du medikuak aseguratuari agindu eta “in situ” aurkitu ezin diren medikamentuen bidalketa. Era berean, aseguruak egonaldiako eta/edo etxera itzultzeko nahitaez behar dituen betaurrekoak bidaltzeaz ere arduratuko da Aseguru Etxea. Medikamentuen edo betaurrekoen zenbatekoa bidalketa egiten den egunetik hilabeteko epean itzuli beharko du aseguruak.

Heriotza gertatzen denerako laguntza

Estaltzen dira



→ **Gorpua aberriratzea.** Aseguratua joan-etorri batean hiltzen bada, Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du bere gorpuzkiak Espainian ehortzi behar diren lekura eramatea.

→ **Aseguratua lehenago itzultzea,** familiako kide bat Espainian hil delako: aseguruaren ezkontidea, lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaideetako bat, edo anai-arrebaren bat.

Desplazamenduan berarekin zihoazen familiartekoak ezin izango balira hasieran aurreikusitako bitartekoen bidez itzuli, Aseguru Etxeak bere gain hartuko du lehen mailako tren-txartel bat, linea erregularreko hegazkin batean turista-mailan bidaiatzeko txartel bat edo beste edozein bitarteko egokirako txartela erosteko ardura, Espainian ehorzketa egingo den lekura iristeko.

Hasierako egonaldiko lekura itzuli beharko balitz ibilgailua berreskuratu edo bidaia jarraitzeko, Aseguru Etxeak, kasu horretan ere, garraio bide egokiak eskainiko ditu.

Laguntzailei laguntzea

Estaltzen dira



→ **Bidaideen itzulera**, gaixotutako, zauritutako edo hildako aseguratutako bat aberriratu beharko balitz.

Aseguratuaren garraio sanitarioa edo heriotzagatikko aberriratzea egin behar bada, Espainian, Aseguru Etxeak antolatuko du gainerako aseguratutako itzultzeko garraibide egokiena, ezin badira itzuli hasiera batean aurreikusitako moduan.

Laguntzailerik gabeko 15 urtetik beherako umeak badira, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du joan-etorriko bidaia, trenez bada 1. klasean, hegazkinez bada turista-klasean, edo bestelako garraibide egoki batean, Espainian bizi den pertsona bat, familiak izendatutakoa, edo Aseguru Etxeak izendatutako kolaboratzaile bat joan dadin umei laguntzera Espainiako bizilekura itzultzeko.

→ **Ordezko gidaria bidaltzea**. Aseguratutako gidaria inork eraman beharko balu gaixotasunagatik, istripuarengatik edo hil egin delako edo gidatzeko gauza ez delako, eta bidaia-lagunetako batek ere ezin badu ordeztu, Aseguru Etxeak gidari profesional bat bidaliko du ibilgailua eta, behar izanez gero bidaiariak, eramateko beren bizilekura ahalik eta bide laburrenetik.

Behar izanez gero, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko aseguratutako gidariaren bidaia-lagunak eramatea helburuko lekuraino, aseguratua ezinean gertatzen bada, baldin eta kostua aseguruaren bizilekura itzultzearena baino txikiagoa bada.

Bidesarien eta gasolinaren gastuak aseguruaren kontura izango dira.

→ **Ekipajearen galera edo lapurreta**. Aseguratutako ekipajea galtzen badu edo lapurtzen badiote, Aseguru Etxeak aholkularitza emango du salaketa jartzeko izapideak egiteko eta ekipajea bilatzen laguntzeko. Ekipajea berreskuratzen bada, Aseguru Etxea arduratuko da aseguruaren bizilekura bidaltzeaz.

→ **Mezu urgenteak bidaltzea**. Aseguru Etxeak ahaleginak egingo ditu mezu urgenteak Espainian dagoen hartzailari bidaltzeko, betiere mezua idatzi duen eta kontratu honen bidez aseguratuta dagoen pertsonaren ardurapean.

IBILGAILUENTZAKO ETA BIDAIARIANTZAKO LAGUNTZA

Ibilgailuei laguntzea matxura, istripua edo lapurreta izanez gero

Estaltzen dira



→ **Laguntza mekanikoa.** Ibilgailuari zirkulatzea eragozten dion matxurarik gertatuz gero, Aseguru Etxeak lehenik tailer-auto bat bidaliko du, ibilgailua ahal bada bertan konpondu eta ibilgailuak eta bidaiariak bidaiarekin jarraitu ahal izateko. Aseguru Etxeak berme horren kostua bere gain hartuko du, 125 €-ko mugaraino.

Ordezko piezak aseguratuarik ordaindu beharko ditu.

→ **Ibilgailua atoian eramatea edo garraiatzea.** Ibilgailua ezin denean matxuraren edo istripuaren lekuan bertan konpondu, eta ibilgetutako ibilgailua baldin badago:

Aseguru-hartzailearen bizilekutik 100 km baino gutxiagora, Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko du:

Ibilgailua gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrerako garraioa. edo

Ibilgailua aseguratuarik aukeratzen duen eta bere bizilekutik gertu dagoen tailerrerainoko garraioa, aseguruaren bizilekuaren eta ibilgailua ibili ezinik geratu den tokiaren artean dagoen distantzian, gehienez ere.

Aseguru-hartzailearen bizilekutik 100 km baino gehiagora, eta ibilgailua konpontzeko —markaren fabrikatzailearen baremoaren arabera— 5 ordu baino gutxiago behar bada edo ibilgetuta 48 ordu baino gutxiago egon behar badu, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere kargu hartuko du:

Ibilgailua gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrerako garraioa.

Aseguru-hartzailearen bizilekutik 100 km baino gehiagora, eta ibilgailua konpontzeko —markaren fabrikatzailearen baremoaren arabera— 5 ordu baino gehiago behar bada edo ibilgetuta 48 ordu baino gehiago egon behar badu, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere kargu hartuko du:

Ibilgailua gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrerako garraioa. edo

Estaltzen dira



Ibilgailua aseguratua aukeratzen duen eta bere bizilekutik gertu dagoen tailerreraingo garraioa, aseguruaren bizilekuaren eta ibilgailua ibili ezinik geratu den tokiaren artean dagoen distantzian, gehienez ere.

→ **Ordezko piezak bidaltzea.** Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko ditu istripu edo lapurreta batek sortutako kalteen edo matxuraren ondorioz ibilgailuaren funtzionamendu egokirako edo segurtasunerako beharrezkoak diren piezak bidaltzeko gastu guztiak, baldin eta pieza horiek “in situ” eskuratu ahal izan ez badira. Halaber, egonez gero, aduanako gastuen eta muga-zergen zenbatekoak ere sartuko dira

Ordezko pieza kostatu dena bakarrik itzuli beharko zaio Aseguru Etxeari hilabeteko epean bidalketa egiten den egunetik kontatzen hasita, pieza onuradunak ordaindu beharrekoa baita.

→ **Ibilgailua bizilekuraino garraiatzea, ondorengo baldintzen arabera:**

Ibilgailua ibiltzeko moduan badago —konpondu delako, edo lapurtu eta berreskuratu delako— eta gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrera garraiatu bada, Aseguru Etxeak eskainiko dio, aseguruari nahiz beste norbaiti, konpondutako edo lapurtu eta berreskuratutako ibilgailua jasotzera joateko garraio egokia.

Ibilgailua atzerrian ibilgetuta geratu bada, berriz, matxura, istripua edo lapurreta izanez gero deskribatutako prestazioez gain, Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko du ibilgailua kamioiz nahiz itsasontziz aberriratzea, erabakitzen bada dagoen lekuan ezin dela konpondu baina Espainian konpon daitekeela, eta konponketaren kostuak salmenta-balioa gainditzen ez badu.

→ **Zaintza-gastuak.** Atzerrian ibilgetuta geratu den eta gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrera garraiatu den ibilgailua aberriratu beharko balitz, Aseguru-etxeak antolatu eta ordainduko ditu ibilgailua zaintzeko gastuak, aseguruak Aseguru-etxera deitzen duen egunetik eta garraiatzaileak ibilgailua jasotzen duen egunera bitartean.

Estaltzen dira



→ **Ibilgailuaren erreskatea.** Ibilgailua lurzoruaren desnibela dela eta erori delako ibilgetuta dagoenean, Aseguru Etxeak ibilgailuaren erreskatea antolatuko du, eta hurbilen dagoen tailer egokiraino atoian eramateaz arduratuko da, gehienez ere 600 €-rainoko kostuarekin.

Laguntza mekanikoko, erreskateko eta atoian eramateko prestazioak estalita daude Aseguratutako ibilgailuak zirkulatzeke egokiak diren bideetatik ibiltzean matxura edo istripua badu, edo bideak egokiak izango ez balira, kokapen zehatza jakiten bada eta laguntza emateko ibilgailuak bertara normaltasunez iristeko moduko baldintzak betetzen badira eta esku hartzen duten pertsonak eta ibilgailuek kalteak izateko inolako arriskurik ez badute.

→ **Gurpila aldatzea.** Kaltetutako gurpilak zirkulatzea eragozten badio ibilgailuari, ordezeko gurpilarekin edo aldi batez erabiltzeko gurpilarekin ordezten saiatuko da Aseguru Etxea, ibilgailuak gurpilak aldatzeko beharrezko ekipamendua eta tresnak baldin baditu.

Ez dira barnean sartzen gurpilak, ezta konpontzeko nahiz orekatzeko gastuak ere.

→ **Erregai bidaltzea.** Ezin bada jarraitu bidaiatzen aseguratutako ibilgailuarekin erregairik ez dagoelako, Aseguru Etxea arduratuko da erregai bidaltzeaz.

→ **Karga-falta:** Ibilgailu aseguratua ibilgailu elektrikoa bada eta bateria kargarik gabe geratzen bada, eta horren ondorioz zirkulatu ezin badu, edota ibilgailu hibrido entxufagarria bada eta kargarik gabe eta erregairik gabe geratzen bada, Aseguru-etxeak bateria kargatzeko zerbitzuak emango dizkio, edo ibilgailua ibilgetuta dagoen lekutik hurbilen dagoen kargagunera atoian eramango du.

→ **Ibilgailu elektrikoetarako eta hibrido entxufagarrietarako zerbitzuguneei eta kargaguneei buruzko informazioa.** Aseguratuak erregai gutxi duela jakinarazten badu errekontza-ibilgailuaren kasuan, edo bateria karga gutxirekin duela, ibilgailu elektrikoaren edo hibrido entxufagarriaren kasuan, Aseguru-etxeak, ibilgailu aseguratua non dagoen jakinik, hurbilen dauzkan kargagune edo elektrizitate-kargagune publikoen berri emango dio.

Estaltzen dira



Erregai-gastuak edo bateria kargatzeko gastuak, ibilgailu elektrikoek eta hibrido entzufagarrien kasuan, aseguratuen kargura izango dira beti.

Bidaiarientzako laguntza, matxura, istripua edo lapurreta gertatuz gero

Estaltzen dira

→ **Pertsonen itzulera**, ibilgailua lapurtuz gero edo ibilgetuta geratuz gero. Lapurreta, matxura edo istripua izan delako ibilgailua 48 ordu baino gehiagoan badago ibilgetuta, Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko du pertsonak beren bizilekura eramatea, garraiobide egokienez baliatuz: taxia, 1. mailako trena, alokairuko ibilgailua, linea erregularreko hegazkina, edo beste garraiobide egokiren bat.

Berme hau luzamendurik gabe aplikatuko da, berehala itzultzeko benetako premia izanez gero.

Beharrezkoa denean, Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko du bidaideak helburuko lekura eramatea, ateratzen den zenbatekoa ez bada etxera itzultzearena baino handiagoa, edozein izanda ere emandako bermeak.

Ibilgailua lapurtuz gero edo ibilgetuta geratuz gero, pertsonak beren bizilekuetara itzultzea ezingo da metatu pertsonak helburuko lekura eramatearekin.

→ **Ostatu-gastuak, ibilgailua ibilgetuta geratuz gero.** Ibilgailua ibilgetuta geratu eta gorabehera gertatu den lekutik hurbilen dagoen tailerrera garraiatu bada eta aseguruak konponketak egiteko zain badaude, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu ostatu-gastuak, gehienez ere aseguratu eta gau bakoitzeko 60 euroko mugarekin (ostatua eta gosaria), 5 gauez gehienez.

Ibilgailua ibilgetuta egonez gero, ostatu-gastuak eta bidaiariak beren bizilekuetara itzultzea ezingo dira metatu.

FUNTSAK AURRERATZEA

Estaltzen dira



→ Funtsak aurreratu ahal izango zaizkio aseguruari, arazo larri eta ustekabekoen ondorioz sortutako gastuei aurre egin ahal izan diezaien.

Horretarako, aseguruak zor-aitorpena egin beharko du, aldez aurretik, aurreratutako zenbatekoa hilabeteko epean itzultzeko konpromisoa hartuz, aurrerapena egiten den datatik kontatzen hasita. Alde horretatik, Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguruari behar adinako abala edo bermea eskatzeko eskubidea.

IZAPIDE JUDIZIALAK EGITEKO LAGUNTZA

Estaltzen dira



→ **Fidantza penala edo isunak aurreratzea**, aseguruak, zirkulazio-istripu baten ondorioz, eginbide judizialak egin behar baditu.

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguruari abal edo bermeren bat eskatzeko eskubidea aurrerapen hori kobratuko duela segurtatzeko, kontuan izanik funtsak aurreraten diren egunetik hilabeteko epea izango duela itzulketa egiteko..

→ **Abokatuari ordainsaria ordaintzea**. Aseguruaren defentsa segurtatzeko, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu abokatu-ordainsariak, 2.000 €-ra arte gehienez ere.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Ez dira estaltzen



→ Aseguru Etxeak tokiko agintariak hartutako akordioen mugen barruan bakarrik esku hartu ahal izango du.

→ Aseguru Etxeak ez du erantzukizunik izango kontratu-obligazioak betetzeko eragozpenak edo ezintasunak sortzen badira ezinbesteko kausaren batengatik, hala nola gerra zibilak edo atzerrikoak, errebolta, herri-mugimenduak, matxinadak, grebak, sedizioak eta indar publikoen errepresaliak, debeku ofizialak, pirateria, leherketak, efektu nuklear edo erradioaktiboak edo klima-arazoak.

→ Elur-kiroletako lehiaketetan parte-hartzearen ondoriozko gertakariak.

→ Xendazaletasunaren edo lehiaketatik kanpoko elur-kiroletako jardueren ondoriozko gertakariak, mendi-goietan (3.000 metrotara, itsasoaren mailatik gora) edo balizatu gabeko pista libreetan egiten badira.

→ Eskalada eta arroila, erreka-zulo, ur-jauzien jaitsiera, espeleologia eta urpekaritza bezalako jarduerak, ez badira begirale baten ardurapean egin.

→ Hirugarren pertsona batzuk salbatzeko edo erreskatatzeko lanetan gertatutakoak.

→ Aurreko puntuetan aurreikusi ez diren jardueretan, kanpoan geldituko dira kirol-lehiaketetan eta/edo arrisku handikoetan parte-hartzearen ondoriozkoak, arrisku handiko jardueratzen hartuz jarduera fisiko eta kirolekoa, lehiaketa zein lehiaketatik kanpokoak, baldin eta irismen zaileko lekuetan egiten bada, ezaugarri geografiko zein politikoei dagokienez, eta/edo erreskate espezializatueta aditutako taldeak eskatzen badituzte.

→ Kanpoan geratzen dira itsasoan, mendian eta basamortuan egindako bilaketa eta erreskate-lanen gastuak.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Laguntza zabaltzea

EZBEHARRAREN JAKINARAZPENA

Aseguratuak ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta ezbeharra behar bezala kudeatzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan egin ahal izango da; hurrengoak da harremanetarako bidea:

Telefonoa	900 38 08 38
Atzeritik	00 34 944 05 14 12

Alderdi batzuk, hala nola Aldez Aurretiko Konfiantza, Bermearen Norainokoa, Abusuzko Portaerak, Kasu Medikoak, Frogagiri eta Itzulketen tratamendua, eta Subrogazio-eskubidea, Bidaia Laguntzako estalduraren modu berean tratatuko dira (≤ 3.500 kg. baino gutxiagoko ibilgailuak).

LURRALDE-EREMUA

Ibilgailu Aseguratua atoian eramateari, erreskatatzeari eta garraiatzeari dagozkion prestazioak aplikagarriak dira Espainian, Europako herrialde guztietan eta Mediterraneo itsasoaren ertzeko herrialdeetan. Bidaia-aseguruari buruzko prestazioak munduko herrialde guztietan izango dira baliozkoak. Eguneroko Bizitzarako Laguntzari buruzko prestazioak aplikagarriak dira Espainian -uharteak, Ceuta eta Melilla barne-, nahiz eta ezbeharra Espainiatik kanpo gertatu.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA

IBILGAILUARENTZAKO LAGUNTZA ZABALTZEA

Estaltzen dira



→ Aseguratutako ibilgailua aseguruak aukeratzen duen eta bere bizilekutik gertu dagoen tailerrerrainoko garraioa, matxura edo ezbeharra izanez gero, baldin eta ezin izan bada ibilgailua lekuan bertan konpondu eta ibilgailuak eta bidaiariek bidaiarekin jarraitu ahal izatea.

→ Ibilgailua dagoen lekutik aseguruaren bizilekutik gertu dagoen tailerrerrainoko edo aseguruaren bizilekurainoko garraioa, ibilgailua lapurtu eta berreskuratua izan ondoren.

→ Ibilgailua lurzoruaren desnibela dela-eta erori delako ibilgetuta dagoenean, Aseguru Etxeak ibilgailuaren erreskatea antolatuko du eta bere gain hartuko du, gehienez ere 1.000 €-rainoko kostuarekin. Kostu hori ezingo da metatu Bidaia Laguntzako estalduran dauden beste muga batzuekin.

Lapurreta izanez gero, aseguruak alde aurretik salaketa jarri beharko du agintaritza eskudunaren aurrean.

BIDAIA-ASEGURUA ZABALTZEA

Estaltzen dira



→ **Atzerriko gastu mediko, kirurgiko, farmazeutiko eta ospitaleratzeoen ordainketa**, Gizarte Segurantzak eta/edo beste edozein aseguru-kontratuk emandako prestazioen osagarri gisa, 30.000 euroko mugarekin ezbehar bakoitzeko; muga hori ezin izango da metatu Bidaia Laguntzaren estalduran ezarritako mugarekin.

Gastu medikoak Gizarte Segurantzak edo beste edozein aseguru-kontratuk estaltzen baditu, Aseguru Etxeak funtsak aurreratzeko hartuko du parte, eta gero itzuli egin beharko zaizkio zenbateko horiek. Halakoetan, aseguruak konpromisoa hartzen du erakunde horien aurrean behar diren izapideak egiteko, gastu horien zenbatekoa berreskuratzeko eta Aseguru Etxeari itzultzeko.

→ **Bidaia Laguntzaren bermean araututa dauden hotel-gastuek, epigrafe hauei dagozkienek, 80 €-ko muga izango dute pertsona eta gau bakoitzeko, bertan ezarritako egun-mugarekin:**

- Hoteleko egonaldia luzatzeagatik sortutako gastuak.
- Familiako kide bat bertan egotea.
- Ostatu-gastuak, ibilgailua ibilgetuta geratuz gero.

→ **Aseguratuak atzerritik lehenago itzultzea, familiako kide bat 48 ordutik gora Espainian ospitaleratuta egon behar delako:** aseguruaren ezkontidea, lehen mailako aurreko eta ondorengo ahaideetako bat, edo anai-arrebaren bat.

→ **Aseguratuak atzerritik lehenago itzultzea, aseguruaren ohiko etxebizitzan sutea, lapurreta edo uholdea gertatzen bada eta aseguruak bertan egotea beharrezkoa bada ondorioak arintzeko edo gertakariarekin zerikusia duten gestioak egiteko.**

Aseguru Etxeak bere gain hartuko du 1. mailako tren-txartel bat, linea erregularreko hegazkin batean turista-mailan bidaiatzeko txartel bat edo beste edozein bitarteko egokirako txartela erosteko ardura, senidea Espainian ospitaleratuta dagoen lekura iristeko. Hasierako egonaldiko lekura itzuli beharko balitz bidaia jarraitzeko, Aseguru Etxeak garraiobide egokiak eskainiko ditu.

EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Kontuan hartu:

Berme honetan, aseguratutzat hartzen da, prestazioetako bakoitzean zehazki arautzen dena gorabehera, Espainian bizilekua duen pertsona fisikoa, Automobilen Aseguruaren polizaren hartzailea eta ohiko gidaria, haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak, etxe berean bizi eta indarrean dagoen legediari jarraiki mendekotasun-egoeran dauden bitartean.

Laguntza Zabaltzeko bermeek estaldura eskaintzen dute ibilgailu aseguruarekin izandako istripu baten ondorioz aseguraturia 48 orduetik gora ospitaleratuta egon behar denean, edota 5 egunetik gora etxean mugitu ezinik egon behar denean, edo aseguraturia hiltzen denean, betiere zirkunstantzia horietako edozein aseguratutako ibilgailuarekin izandako zirkulazio-istripu baten ondoriozkoa denean.

Bermeak inoiz ere ez dira aplikatuko zerbitzu publikoen ordez, bereziki larrialdi-laguntzetan.

Estaltzen dira



→ **Etkez etxeko laguntzailea.** Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etkez etxeko laguntzaile bat bilatu eta bidaltzea, aseguruari laguntzeko etxeko oinarritzko zereginetan, etxebizitza garbitzen, etxean janaria prestatzen; etxeko arropa garbitzen, lisatzen eta antolatzen; erabiltzailearen kontura jakia eta premiazko beste gai batzuk erosten, gehienez ere 30 orduz, eta egunean gutxienez 2 orduz jarraian lehenengo egunetik kontaktzen hasita. Ordu horiek hilabeteko epean banatuko dira gehienez ere.

Prestazioaren ordu-kopurua esleitzeko eskatzailearen autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta besteak beste alderdi hauek baloratuko dira: mugitu ezinik egondako denbora efektiboa edo oinarritzko zereginak egiteko ezgaitasuna, aseguruaren lesioen larritasuna eta familia-unitateko mendeko kideen kopurua.

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguruari egin dizkieten txosten eta proba medikoak eskatzeko eskubidea; Aseguru Etxeko medikuak baloratuko ditu eta erabaki eta baloratuko du bezeroaren ezintasun-maila eta, ondorioz, zenbat ordu egin beharko dituen etkez etxeko laguntzaileak.

Etkez etxeko laguntzailearen bermea ezin da metatu etxean familia-unitate berean pertsona bat baino gehiago daudenean lesionatuta edo mugitu ezinik.

Estaltzen dira



→ **Laguntza soziosanitarioa.** Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etxez etxeko laguntzaile bat bilatu eta bidaltzea, etxeko lanak alde batera utzita, aseguruak zainketa pertsonala behar duenean, gehienez ere 30 orduz, egunean gutxienez 2 orduz jarraian lehenengo egunetik kontaktzen hasita eta gehienez hilabeteko epean zehar banatuta.

Berme honetan sartzen diren prestazioak dira: aseguratuari bere eguneroko higieanean laguntzea, bere burua txukuntzen, dutxatzen edo bainatzen, arropa eta oinetakoak janzten eta elikatzen, etxe barruan lekuz aldatzen eta mugitzen, jaten eta osasun-zentroak agindutako botikak hartzen, eta oinarrizko laguntza ematea inkontinentzia duten pertsonen eta higie- eta txukuntasun-ohiturak sustatzea.

Prestazioaren ordu-kopurua esleitzeko eskatzailearen autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta besteak beste alderdi hauek baloratuko dira: mugitu ezinik egondako denbora efektiboa edo oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasuna, istripua izan duen aseguratuaren lesioen larritasuna eta familia-unitateko mendeko kideen kopurua.

Nolanahi ere, Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguratuari egin zaizkion txosten eta proba medikoak eskatzeko eskubidea.

Berme hau eta "Etxez etxeko laguntzailea" bermea ez dira bateragarriak.

→ **16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak etxean zaintzeko laguntzailea.** Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etxez etxeko laguntzaile bat kudeatu eta bidaltzea, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak zaindu eta artatzeko, gehienez ere 30 orduz, hilabeteko gehieneko epean zehar, egunean 2 ordu gutxienez jarraian eginez.

Prestazioaren orduen kopurua ezartzeko, istripua izan duen aseguratuaren autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta mugitu ezinik egondako denbora efektiboan edo oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasunean, aseguratuaren lesioen larritasunean eta familia-unitateko mendeko kideen kopuruan oinarrituz kalkulatu da ordu-kopuru hori.

Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizi izatea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Estaltzen dira



Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria”, “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak eramatea”, “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria” eta “Lehen graduko aurreko ahaideak eramatea”.

→ **16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria.** Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du familiarteko bat (edo aseguratuak izendatzen duen pertsona) aseguratuaren etxeraino iristeko bidaia, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista-klasean), trenez (1. klasean) edo taxiz, 16 urteko seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak zaindu ditzan.

Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizi izatea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko etxez etxeko laguntzailea”, “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eramatea”, “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko etxez etxeko laguntzailea” eta “Lehen graduko aurreko ahaideak eramatea”.

→ **16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak eramatea.** Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du bidaia, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista klasean), trenez (1. klasean) edo taxiz, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak aseguratuak izendatutako familiartekoaren Espainiako bizilekura eramateko.

Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizi izatea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria”, “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak etxean zaintzeko laguntzailea”, “16 urtetik beherako seme-alabek edo desgaitasuna dutenek eskolako lanak egiteko etxeko laguntza” “Lehen graduko aurreko ahaideak etxean zaintzeko laguntzailea”, “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria”

Estaltzen dira



→ **16 urtetik beherako seme-alaben edo desgaitasuna duten lagun-egilea.** Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du seme-alaba adingabeei lagun egiteko Aseguratuak edo Aseguru Etxeak berak Espainian izendatutako pertsonarentzako joan-etorriko txartela.

Lagun-egilea Aseguru Etxeak izendatuko du aseguratuak ezin duenean pertsona heldu bat izendatu.

→ **16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eskolara eta eskolatik etxera eramateko laguntzailea.** Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du lagun-egile bat aurkitzea eta bidaltzea, egunean gehienez 4 aldiz eta gehienez 10 egunez eskola-laguntzea egiteko, familiartekorik ez badago erabilgarri, eta gehienez hilabeteko epean.

→ **16 urtetik beherako seme-alabek edo desgaitasuna dutenak eskolako lanak egiteko etxeko laguntza** 16 urtetik beherako seme-alabak mugitu ezinda geratzen badira ikasturtean zehar (oporraldietan izan ezik) eta etxean 2 aste baino gehiago egin behar badituzte, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du irakasle partikular bat bidaltzea seme-alabentzat, egunean gehienez 3 orduz eta lehenengo egunetik hasita. Ordu horiek hiru hilabeteko epean zehar banatuko dira gehienez ere, eta berme hau bateraezina da “16 urtetik beherako seme-alaben edo desgaitasuna dutenen joan-etorria” bermearekin.

→ **Konpainiako etxeko animaliak zaintzea.** Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du katuen eta txakurren garraioa eta ostatua hilabeteko epean gehienez.

→ **Familiako lagun-egile bat ospitaleratutako aseguruaren ondora eramateko joan-etorria.** Aseguratu ospitaleratuta dagoenean eta ospitalean 48 orduetik gora egingo dituela aurreikusten denean, eta lagun egiteko beste inor ez duenean, Aseguru Etxeak joan-etorriko txartel bat jarriko du aseguruaren familiarteko baten eskura, egokien irizten zaion garraiobidean, aseguruaren ondora joan dadin.

→ **Familiarteko baten ostatu-gastuak.** Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu ospitaleratutako aseguruarengana joandako familiartekoaren edo lagun-egilearen hoteleko ostatu- eta gosari-gastuak, ospitalizazioa amaitu arte, bi eguneko mugarekin eta egunean gehienez 60 euroko mugarekin.

Estaltzen dira



→ **Botikak bidaltzea.** Aseguru Etxea arduratuko da botikak bilatzeaz eta aseguratuak dagoen lekura bidaltzeaz, hiru aldiz gehienez hilabete batean zehar. Botikak zirkulazio-istripuaren ondorioz preskribatutakoak izan daitezke, edo istripuarekin zerikusirik ez duten osasun-problema tratatzekoak, baina aseguratuak ibilgailu aseguratuarekin izandako istripu baten ondorioz mugitu ezinik egon behar du nahitaez.

→ **Mezu urgentek transmititzea eguneko 24 orduetan.** Aseguru Etxea arduratuko da estalitako ezbeharren ondoriozko mezu urgentek transmititzeaz, aseguratuak hala eskatzen badio, hornitzaile-sarearen bidez.

Ez dira estaltzen



→ Pertsona aseguratuaren izaera ez duten ibilgailu aseguratuaren beste okupatzaile batzuentzako prestazioak.

→ Pertsonal sanitarioak etxean emateko zerbitzu-prestazioak, hala nola, erizainak, OLTak, mediku-espezialitateak, fisioterapia, errehabilitazioa, ergoterapia.

→ Etxeko laguntzailearen estalduraren arabera erosi beharreko jakien eta premiazko gaien kostua, erosketari egiteko behar den dirua erosketari egin aurretik jarri beharko baitu aseguratuak.

→ Botikak kostua; kostu hori botikak entregatzean ordaindu beharko dio aseguratuak Aseguru Etxeari, botikak bidaltzeko bermea baliatzen badu.

→ Aseguru Etxeak ez du bere gain hartzen entrega atzeratzearen edo botikak egoeraren erantzukizunik.

→ Aseguru Etxeak tokiko agintarietako hartutako akordioaren mugen barruan bakarrik esku hartu ahal izango du.

Ez dira estaltzen



→ Aseguru Etxeak ez du erantzukizunik izango kontratu-obligazioak betetzeko eragozpenak edo ezintasunak sortzen badira ezinbesteko kausaren batengatik, hala nola gerra zibilak edo atzerrikoak, erreboltak, herri-mugimenduak, matxinadak, grebak, sedizioak eta indar publikoen errepresaliak, debeku ofizialak, pirateria, leherketak, efektu nuklear edo erradioaktiboak edo klima-arazoak.

→ Elur-kiroletako lehiaketetan parte-hartzearen ondoriozko gertakariak.

→ Xendazaletasunaren edo lehiaketatik kanpoko elur-kiroletako jardueren ondoriozko gertakariak, mendi-goietan (3.000 metrotara, itsasoaren mailatik gora) edo balizatu gabeko pista libreetan egiten badira.

→ Eskalada eta arroila, erreka-zulo, ur-jauzien jaitsiera, espeleologia eta urpekaritza bezalako jarduerak, ez badira begirale baten ardurapean egin.

→ Hirugarren pertsona batzuk salbatzeko edo erreskatatzeko lanetan gertatutakoak.

→ Aurreko puntuetan aurreikusi ez diren jardueretan, kanpoan geldituko dira kirol-lehiaketetan eta/edo arrisku handikoetan parte-hartzearen ondoriozkoak, arrisku handiko jardueratzat hartuz jarduera fisiko eta kirolekoa, lehiaketa zein lehiaketatik kanpooka, baldin eta irismen zaileko lekuetan egiten bada, ezaugarri geografiko zein politikoei dagokienez, eta/edo erreskate espezializatueta aditutako taldeak eskatzen badituzte.

→ Kanpoan geratzen dira itsasoan, mendian eta basamortuan egindako bilaketa eta erreskate-lanen gastuak.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

Gidabaimena kentzea

Kontuan hartu:

Berme honen ondorioetarako aseguratutzat hartzen da Baldintza Partikularretan ohiko gidari gisa deklaraturako pertsona, eta baita aseguru-hartzailea ere, beste pertsona fisiko bat baldin bada.

Aseguru-hartzailea pertsona juridikoa bada, aseguruak izango dira aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten pertsonak, eta, aldi berean, Baldintza Partikularretan azaltzen direnak.

Ezbehartzat ulertzen da Aseguratuari gidabaimena bere borondatearen kontra eta berarentzat kaltegarri izanik aldi baterako kentzea, poliza eta berme hau indarrean dauden garaian gertatzen bada eta bermatutako subsidioa ordaintzea inplikutzen badu, eta aseguru hau indarrean dagoen bitartean gertatutako egitate batetik ondorioztatzen baldin bada.

LURRALDE-EREMUA

Estaldura hau aplikatuko zaie Espainiako lurraldean jazotako gertakariei, bermearen objektu diren gaietan eskudun diren Espainiako organismo eta auzitegiek aplikatu beharreko Zuzenbideari lotuta.

EZBEHARRAREN JAKINARAZPENA

Aseguru-hartzaileak edo aseguruak ezbeharraren berri eman beharko dio Aseguru Etxeari, gehienez ere ezbeharraren berri izan ondorengo zazpi egunen barruan, eta ezbeharraren zirkunstantzia eta ondorioei, eta, bereziki, gidabaimena aldi baterako kentzeko arrazoiari buruzko xehetasun guztiak eman beharko ditu.

ASEGURUTIK ERATORRITAKO AKZIOEN PRESKRIPZIOA

Berme honetatik eratorritako akzioen preskripzioa bi urteko epea igarotakoan gertatuko da, akzioa egikaritzen has daitekeen egunetik aurrera kontatuta.

Estaltzen dira



→ **Gidabaimena aldi baterako kentzeagatik hilean subsidio bat ordaintzea**, aseguratuari —aseguratutako ibilgailua Espainiako lurraldean gidatzen ari dela— gidabaimena administrazio-ebazpen baten edo epai judizial irmo baten bidez aldi baterako kentzen zaionean.

Kalte-ordaina emateko orduan, Baldintza Partikularretan aldi baterako gidabaimena kentzen denerako ezarritako zenbatekoa eta mugak hartuko dira kontuan, baimen-kentze hori gobernu-erabakiz edo epai judizialez dekretatu bada aseguruak ausarkeriaz, erruz edo zabarkeriaz jokatu duelako gertatutako zirkulazio-arazo batengatik.

→ **Gidabaimena errebokatzeagatik hilean subsidio bat ordaintzea**, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea aplikatzearen ondorioz aseguruak legez esleituak dituen puntu guztiak galtzen ditunean eta, horren ondorioz, gidabaimena errebokatzea gertatzen denean. Gidabaimena errebokatzeagatik subsidioaren muga Baldintza Partikularretan ezarritako zenbatekoa izango da, eta hileroko ordainduko da, gehienez ere 3 hilabeteko epean.

→ **Prestakuntzako ikastaroetarako matrikulazio-gastuak, gidabaimena errebokatu ondoren**, esleitutako puntu guztiak galtzeagatik geratu denean indarririk gabe gidatzeko baimena eta aseguruak berriro lehen zuen maila bereko gidabaimena lor dezakeenean, legez ezarritako epeak igarotakoan eta bide-sentsibilizazio eta -berreziketako ikastaro bat probetxuz egin eta gainditu, eta ezagutza-kontrolako probak ere gainditu ondoren.

Sentsibilizazioko ikastaroetarako matrikulazio-gastuen eta ezagutza-kontrolako proben tasen kontzeptuan ordaindu beharreko kopuruak 500 euroko muga izango du, aseguruak bere aldetik egin dituen ordainketen egiaztagiriak aurkeztu ostean.

→ **Puntuak partzialki berreskuratzeko bide-segurtasunari buruzko sensibilizazio eta berreziketako ikastaroetako matrikulazio-gastuak**, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea hausteagatik emandako ebazpen administratibo irmo baten ondorioz kendutako puntuak direnean. Gastu horiek ordaintzeko, beharrezkoa izango da aseguruak 6 puntu edo gutxiago izatea azkeneko zehapenaren ondoren, eta estaldura hau indarrean sartzen denetik gutxienez 4 puntu galdu izatea.

Sentsibilizazioko ikastaroetarako matrikulazio-gastuen eta ezagutza-kontrolako proben tasen kontzeptuan ordaindu beharreko zenbatekoak, bai errebokazioa denean eta bai puntuak partzialki berreskuratzea denean, 500 euroko muga izango du, eta aseguratuek ezagutza-kontrolako probak gainditzen dituzenean eta egin beharreko ordainketak egin dituela egiaztatzeko agiriak aurkezten dituzenean ordainduko zaio.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA, ETA BERTAN EZARRITAKO MUGARAINO ORDAINDUKO DA.

Adibideak

- Abiadura 50 km/h-ra mugatua dagoen leku batean 90 km/h-an baldin bazoaz, eta Trafikoko Buruzagitzak gidabaimena 3 hilabeterako kentzen badizu, 3 hilabeteen jarraian kalte-ordaina emango zaizu, zure polizako Baldintza Partikularretan berme horretarako agertzen den diru-kopuruarekin.
- Zuk poliza kontratatzerakoan (300 euro hileko kapitalarekin) 10 puntu baldin badauzkazu, eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea aplikatuz gidabaimeneko puntu guztiak kentzen bazaizkizu eta, ondorioz, gidabaimena betiko errebokatzeko bazaizu, hilean kobratu beharreko kalte-ordaina 250 eurokoa izango litzateke 3 hilabeteen (300 euro \times 10/12 = 250. Ikus Gidabaimena Kentzeagatiko Bermeak estalitako ezbehar-kasuko kalteen balorazioari buruzko idatz-zatia 103. orrialdean)
- Poliza kontratatzean, edo estaldura zure polizan sartzean, 11 puntu baldin badauzkazu, eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea aplikatuz gidabaimeneko puntu guztiak kentzen badizkizute eta, ondorioz, gidabaimena errebokatzeko bada eta puntuak berreskuratzeko sentsibilizazio-ikastaroak egin beharrean geratzen bazara, matrikulazio-gastuak eta ezagutza-probetara aurkezteko tasak berreskuratzeko eskubidea izango duzu, 458 euroko mugarekin (500 euro \times 11/12). Ikus "Gidabaimena Kentzeagatiko Bermeak estalitako ezbehar-kasuko kalteen balorazioari buruzko idatz-zatia"
- Gidabaimenean 8 puntuko saldoa badaukazu eta 4 kentzen badizkizute abiadura-muga ez errespetatzeagatik, eta puntuak berreskuratzeko ikastaroaren kostua 220 eurokoa bada, Aseguru Etxeak, ikastaro hori ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztutakoan, kostu osoa ordainduko dizu (muga 500 eurokoa da).

Ez dira estaltzen



- Gidabaimena behin betiko kentzeagatik eratorritako ezbeharrak.
- Aseguru-estaldura indarrean sartu aurretik gertatutako egitateen ondorioz gidabaimena aldi baterako kentzea.
- Aseguratuak nahita edota doloz edo erru larriz egindako egitateen ondorioz gidabaimena aldi baterako kentzea.
- Zirkulazio-segurtasunaren aurkako delitu batengatik —zehazki, droga toxikoen edo sorgogarrrien, gai psicotropiko edo edari alkoholduen eraginpean gidatzeagatik, edo ausarkeriaz gidatzeagatik— emandako epai judizial irmoaren ondorioz gidabaimena aldi baterako kentzea.
- Gidabaimena aldi baterako kentzea, ebazpen irmo baten ondorioz ez denean.
- Gidabaimena aldi baterako kentzea, aseguratuarik lehiaketa edo kirol-probetan parte-hartzearen ondorioz.
- Aseguratuari kondenaz ezartzen zaizkion kalte-ordainak, isunak edo zehapenak.
- Zergak eta izaera fiskaleko bestelako ordainketak, dokumentu publiko edo pribatuak erakunde ofizialen aurrean aurkezteagatik sortuak direnean.

Adibideak

- Edari alkoholduen eraginpean gidatzeagatik zigor bat jartzen badizute, eta zigor hori Instrukzioko Epaitegi batek izapidetzen badu eta zure aurkako kondena-epaia ematen badu, trafiko-segurtasunaren aurkako delitu bat egiteagatik.
- Frantzian egindako arau-hauste batengatik zigortzen bazaituzte, ez duzu berme honetan deskribatutako kontzeptu bat beraren estaldurarik izango, Frantzia estalduraren lurralde-eremutik kanpo dagoelako.

BORONDATEZKO AUTOMOBIL-ASEGURUAREN BERMEAK

ORDEZKO IBILGAILUA

LURRALDE-EREMUA

Berme honen prestazioak Espainian aplikatzekoak dira.

EZBEHARRAREN JAKINARAZPENA

Aseguratuak ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko hogeita lau orduetan egin ahal izango da, urteko egun guztietan.

Ezbeharra telefono-zenbaki bakar honetan jakinarazi beharko da: 900 38 08 38.

Estaltzen dira



→ Berme honen bidez Aseguru Etxeak ordezeko automobil bat jarriko du aseguratuaren eskura Espainian, alokairuan, eta betiere, matxura edo zirkulazio-istripu baten ondorioz aseguraturako ibilgailuak kalteak, lapurreta, sutea edo bandalismoa jasaten baditu, eta polizan aseguraturako ibilgailuaren konponketak Baldintza Partikularretan ezarritako orduen muga gainditzen badu. Ibilgailua konpondutakoan eta gehienez 15 egun natural jarraituko epean amaituko da prestazio hori.

→ Ezbeharra gertatu eta 24 orduetatik aurrera emango da ibilgailua, eta polizako Baldintza Partikularretan ezarritako motakoa izango da (Espainian lan egiten duten alokairu-enpresa garrantzitsuenen sailkapenaren arabera). Ibilgailuen alokairu-enpresak ezarritako baldintzak errespetatu beharko ditu aseguratuak.

→ Zerbitzua behar bezala emateko, aseguratzailerak beretzat gordetzen du konponketaren jarraipena egiteko eskubidea.

→ Aseguratuak hala eskatuta, estaldura mugatu ahal izango da ibilgailu aseguratuak kalteak, lapurreta, sute edo bandalismoa jasaten duen zirkulazio-ezbeharretara.

BERME HAU ORDAINTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Adibideak

- Ezbehar bat baduzu eta haren konponketak 20 ordu behar baditu, ordezeko ibilgailu bat izateko eskubidea duzu ezbeharra gertatu eta 24 ordu igaro direnetik aurrera, eta konponketa egiten den arte, 15 egunez gehienez ere.
- Zure ibilgailua lapurreta baten ondorioz desagertzen bada, ordezeko ibilgailu bat erabili ahal izango duzu hura agertu arte, 15 eguneko mugarekin.
- Ezbehar bat izaten baduzu eta konponketak 20 ordu behar baditu, ordezeko ibilgailu bat jasotzeko eskubidea izango duzu ezbeharra gertatu denetik 24 ordu igaro direnetik aurrera, konponketa egiten den arte, 15 egunez gehienez ere.

Ez dira estaltzen



- Baldintza Orokor hauetako Norberaren Kalteak, Lapurreta eta Sutea bermeetatik kanpo geratzen diren egitateen ondoriozko ibilgetzeak.
- Matxura baten ondoriozko ibilgetzeak, espresuki kontratatu ezean.
- Erregai-gastuak eta alokatutako ibilgailua erabiltzeari lotutako beste batzuk, hala nola isunak, aparkalekuak edo bidesariak, horiek aseguratuaeren kargurakoak izango baitira beti.
- Ordezko ibilgailuaren alokairu-kostua, aseguratzaileak espresuki baimendu gabeko denboraldian.
- Ordezko ibilgailua hitzartutakoa ez den leku batean entregatetik eratorritako kostua.
- Ordezko ibilgailuaren eskaera, ezbeharra ez bazaio Aseguru Etxeari behar bezala jakinarazi.

Adibideak

- Zure ibilgailuak matxura bat izan bada, ez duzu izango ordezeko ibilgailua jasotzeko eskubidea, salbu eta espresuki kontratatu bada.
- Ordezko ibilgailua aseguratzaileak baimendu duena baino denbora luzeagoz erabiltzen baduzu, berme honek ez du estaliko soberako erabilera horretatik sortutako kostua.

EZOHIKO ARRISKUAK

EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEGUAREN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAK EMAN BEHARREKO KALTE-ORDAINAREN KLAUSULA.

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoarekin bat, enpresa-erakunde publiko horren aldeko errekarua nahitaez gaineratu behar duen aseguru-kontratu baten aseguru-hartzaileak edozein aseguru-entitatearekin hitzartu ahal izango du ezohiko arriskuen estaldura, baldin eta aseguru-entitate horrek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu Espainian gertatu diren eta bertako arriskueta eragina duten ezohiko gertaerek sortutako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak, baita atzerrian gertatutako enak ere, pertsonen aseguruaren kasuan, Aseguratuak bere ohiko egoitza Espainian badu eta Aseguru Hartzaileak Partzuergoaren aldeko errekaruak ordainduta baditu, ondorengo egoeretako bat gertatzen denean:

- a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezohiko arriskua aseguru-entitatearekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.
- b) Aipatutako aseguru-poliza horrek babestua egonik ere, Aseguru-entitateak ezin izatea bere betebeharririk bete, judizialki konkurtsoan dagoela deklaratu izan delako, edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio-prozedura batean dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jarduna egokituko du, aipatu Legezko Estatutuan, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan -otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitakoan- eta xedapen osagarrietan zehaztutakora moldatzeko.

Lege-arauen laburpena

1. ESTALITAKO EZOHIKO GERTAERAK

a) Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas enbatak sortutakoak barne), sumendien erupzioak, ezohiko ekaitz ziklonikoa (barnean hartuz 120 km/h-tik gorako ezohiko haize-boladak eta tornadoak) eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.

b) Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilak direla-eta bortxaz eragindakoak.

c) Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Kidegoek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioenak eta gorputz sideralak erortzea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren instantziaz ziurtatuko dira, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gai horretan eskudunak diren gainerako erakunde publikoek egindako txostenen bidez. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, edo Indar Armatuek edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertakariei buruzko informazioa bildu ahal izango du jurisdikzio- eta administrazio-organo eskudunetatik.

2. KANPOAN UTZITAKO ARRISKUAK

- a) Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik eragiten ez dutenak.
- b) Aseguruen Kontentsazio Partzuergoaren aldeko errekargua nahitaezkoa ez duen aseguru-kontratu baten bidez aseguraturuta dauden ondasunetan sortutakoak.
- c) Aseguratutako gauzaren berezko akatsaren edo mantentze-falta nabarmenaren ondoriozkoak.
- d) Gatazka armatuek eragindakoak, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- e) Energia nuklearretik eratorriak, kalte nuklearrei edo material erradioaktiboengatik sortutakoei buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe. Hori horrela izanik ere, barnean sartuko dira aseguraturako instalazio nuklear batean sortutako zuzeneko kalteak, baldin eta instalazioari berari eragiten dion ezohiko gertaera baten ondorio badira.
- f) Denboraren iragateak berak sortutakoak, eta etengabe, guztiz edo partzialki urpean dauden ondasunak direnean, olatuen edo ohiko korronteen eraginak berak sortutakoak.³
- g) Aurreko 1. a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sorturikoak, eta, bereziki, maila freatikoaren igoerak, malda-higidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erortzeek eta antzeko fenomenoek sorturikoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertaturikoak, baldin eta ur horiek inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.
- h) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, jarduera horiek aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ezohiko gertakaritzat hartzen direnean izan ezik.

- i) Aseguratuak fede gaiztoz eragindakoak.
- j) Naturako fenomenoek sortutako ezbeharrek ondasunei eragindako kalteak edo diruzko galerak, polizaren jaulkitze-data edo efektu-data -gerokoa bada-ez bada ezbeharra gertatu den datakoa baino zazpi egun natural lehenagokoa, ez bada demostratuta geratzen, behintzat, asegurua ezin izan zela lehenago kontratatu interes aseguragarriarik ez zegoelako. Gabealdi hau ez da aplikatuko polizaren birjarpena edo ordezpena gertatzen den kasuetan, erakunde berean edo beste batean, jarraipenaren konponketarik gabe, estaldura zabaltzeko edo estaldura berri bat egiteko zatian ez bada. Ez da aplikatuko ezta ere polizan aurreikusitako errebalorizazio automatikotik sortutako kapital aseguratuaren zatirako.
- k) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoaren arabera, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo asegurua azkenduta dagoenean primak ez direlako ordaindu.
- l) Ondasunetan gertatutako kalteei dagokionez, zeharkakoak edo zuzeneko nahiz zeharkako kalteetatik eratorritako galerak, ezohiko arriskuen aseguruaaren Erregelamenduan kalte-ordaina jasotzeko modukoak direla zehazten diren diruzko galerak izan ezik. Bereziki, ez dira estaldura honetan sartzen energia elektriko, gas erregai, fuel-olio, gasolio edo bestelako fluidoaren kanpo-horniduran etenak edo aldaketak gertatzeagatik sortutako kalteak edo galerak, ezta aurreko paragrafoan zehaztutakoaz bestelako edozein zeharkako kalte edo galera ere, ezohiko arriskuen estalduran sartuta dagoen kausa batek sortutakoak izan arren.
- m) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak katastrofe edo hondamen nazional gisa kalifikatzen dituenak.
- n) Lurreko ibilgailuen erantzukizun zibilean, estaldura honetatik eratorritako kalte pertsonalak.

3. FRANKIZIA

I. Frankizia aseguruaren kargurakoa izango da:

a) Zuzeneko kalteetan, kalteen aurkako aseguruetan, ezbeharrak sortu dituen ordaindu beharreko kalteen % zazpia izango da aseguruaren kargurako frankizia. Hala ere, ez zaie etxebizitzari eragiten dieten kalteen frankiziagatik murrizketarik egingo etxebizitza-jabeen komunitatei ezta ibilgailuen aseguruako polizak aseguratutako ibilgailuei.

b) Mozkin-galeraren kasuan, ohiko ezbeharren ondorioz izandako mozkin-galtzearako polizan aurreikusita dagoen frankizia (denbora edo zenbatekoa) bera izango da aseguruaren kargurako frankizia. Mozkin-galerako ohiko ezbeharrak estaltzeko hainbat frankizia badaude, estaldura nagusirako aurreikusitakoak aplikatuko dira.

c) Poliza batean ezartzen bada frankizia konbinatua kalteetarako eta mozkin-galeretarako, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak likidatuko ditu kalte materialak aurreko a) atalean aurreikusitakoa aplikatuz dagokion frankiziaren murrizketarekin, eta gertatutako mozkin-galera likidatuko du estaldura nagusirako polizan ezarritako frankiziaren murrizketarekin, kalte materialetako likidazioan aplikatutako frankizia kenduta.

Pertsona-aseguruetan ez da kenkaririk egingo frankiziagatik.

4. ESTALDURAREN HEDADURA.

1. Aseguru-polizetan ohiko arriskuen estaldurarako zehazten diren ondasun edo pertsona berberak eta zenbateko aseguru berberak estaliko ditu ezohiko arriskuen estaldurak.

2. Hori horrela izanik ere:

a) Ibilgailu motordunen kalte propioak estaltzen dituzten polizetan, interes aseguragarri osoa bermatuko du Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak, poliza arruntak partzialki bakarrik babestu arren.

b) Ibilgailuek lurreko ibilgailu automobilen erantzukizun zibileko poliza bat bakarrik daukatenean, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren ezohiko arriskuen estaldurak bermatuko du ibilgailuaren balioa ezbeharrak gertatu aurreko unean ibilgailuak zuen egoera kontuan hartuta, merkatuan onartutako erosketa orokorreko prezioen arabera.

c) Bizitza-aseguruako polizak direnean, kontratuan aurreikusitakoaren arabera, eta aseguru pribatuak arautzen dituen araudiarekin bat, hornidura matematikoa sortzen badute, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren estaldurak Aseguratu bakoitzari dagokion arrisku-kapitalari egingo dio

erreferentzia, hau da, aseguratutako zenbatekoaren eta poliza jaulki duen aseguru-entitateak (aipatutako araudiaren arabera) eratuta eduki behar duen hornidura matematikoaren arteko aldeari. Hornidura matematikoari dagokion zenbatekoa aipatutako aseguru-entitateak ordainduko du.

EZOHIKO ARRISKUAK

Kalteen berri ematea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari

1. Estalduraz Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion kalte-ordainen eskaera Partzuergo horri zuzendutako komunikazio bidez egingo da. Komunikazio hori aseguru-hartzaileak, aseguruak edo polizaren onuradunak egingo du, edo aurrekoen kontura eta izenean jarduten duenak, edo aseguru-entitateak edo aseguru kudeatzeko esku hartu duen aseguru-bitartekariak.

2. Honela egin ahal izango da kalteen komunikazioa eta honela eskuratu ahal izango da prozedurari eta ezbeharren izapidetze-egoerari buruzko edozein informazi:

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Telefono bidezko Arreta Zentrora deituz (952 367 042 edo 902 222 665 zenbakira).

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren webgunearen bidez (www.consorseguros.es).

3. Kalteen balorazioa: aseguru legeriaren eta aseguru-polizaren arabera kalte-ordaina dagokien kalteen balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta Partzuergoak ez da lotetsita egongo arrisku arruntak estaltzen dituen aseguru-entitateak egindako balorazioekin, halakorik egonez gero.

4. Kalte-ordaina ematea: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko dio kalte-ordaina aseguruaren onuradunari banku-transferentzia bidez.

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN

Alderdien eskubideak eta obligazioak

Ezbehar bat gertatzen denean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak obligazioa izango dute:

- Beren esku dauden baliabideak erabiltzeko, ezbeharraren ondorioak arintzeko.

Obligazio hau ez betetzeak eskubidea emango dio Aseguru Etxeari bere prestazioa murrizteko, egokia den proportzioan, kontuan hartuz zenbaterainokoak izan diren hortik sortutako kalteen garrantzia eta aseguratuaren errua.

Ez betetze hori egingo balitz Aseguru Etxeari kalte egiteko asmo garbiarekin, Aseguru Etxeak ez du ezbeharraren ondoriozko prestazioa eman beharrik izango.

Obligazio hori betetzeagatik sortzen diren gastuak, salbatutako ondasunekiko neurritz kanpokoak edo desegokiak ez baldin badira, Aseguru Etxearen kontura izango dira —baita gastu horiek emaitza efektibo edo positiborik izan ez badute ere—, polizako Baldintza Partikularretan ezarritako mugaraino. Kontzeptu horretarako zenbateko zehatzik itundu ez bada, benetan sortutako gastuen kalte-ordaina emango da, zenbateko aseguratu gaitu gabe betiere.

Kontratu honen arabera, ezbeharrak sortutako kaltearen zati baten ordaina bakarrik eman behar badu Aseguru Etxeak, salbamendu-gastuen zati proportzionala ordaindu beharko du, baldin eta aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeak emandako instrukzioen arabera jokatu ez badute.

- Aseguru Etxeari ezbeharra gertatu dela jakinarazteko horren berri izan eta gehienez ere zazpi eguneko epean, polizako Baldintza Partikularretan epe luzeagorik ezartzen ez baldin bada.

Obligazio hau betetzen ez bada, ezbeharra ez deklaratzegatik sortutako kalteak eta galerak erreklamatu ahal izango ditu Aseguru Etxeak, ezbeharraren berri beste bide batetik izan zuela frogatzen denean izan ezik.

- Aseguru Etxeari idatziz helarazi behar zaio, aurreko ataleko jakinarazpena egin eta bost egun igaro aurretik, ezbeharra gertatu zenean gauzen zerrenda, salbatu direnena, eta kalte edo galeren zenbatespena.

Aseguratuari dagokio gauza horiek bazirela frogatzea. Hala ere, polizaren edukia aseguratuaren aldeko presuntzioa izango da froga eraginkorragorik aurkeztu ezin denean.

- Aseguru Etxeari era guztietako informazioa emateko, ezbeharraren zirkunstantzia eta ondorio guztiei buruz.

Informazioa emateko obligazio hau ez betetzeak kalte-ordainerako eskubidea galtzea ekarriko du doloa edo erru larria izan denean.

- Era berean, aseguru-hartzaileak eta aseguratuak lagundu egin beharko dute ezbeharra ahalik eta egokien izapidetzen, eta Aseguru Etxeari ahalik eta azkarren eman beharko diote ezbeharraren inguruan jaso duten edozein jakinarazpen judicial, estrajudicial edo administratiboren berri.

Nolanahi ere, ezbeharrari dagokionez ezingo dute kaltetutako beste hirugarren baten erreklamaziorik negoziatu, baztertu ezta onartu ere, Aseguru Etxeak espresuki horretarako baimenik ematen ez badu, behintzat.

Nahitaezko nahiz Borondatezko Erantzukizun Zibil Osagarriaren bermeak estaltzen duen ezbeharra gertatzen denean:

Aseguru Etxeak hartuko du kaltetuen erreklamazioei erantzuteko zuzendaritza juridikoa, eta bere kontura izango dira sortzen diren prozesuko gastuak. Aseguratuak behar den laguntza eman beharko du Aseguru Etxeak bere gain hartu duen defentsarako.

Aseguru Etxeak auzitegi nagusietan errekurtsioak jartzea erabaki ahal izango du, eta erabaki horren berri eman beharko dio aseguratuari.

Aseguratuak errekurtsioarekin aurrera jarraitu nahi badu, Aseguru Etxearen irizpidearen aurka, bere kontura izango dira sortzen diren gastu guztiak, aurreko auzialdian lortutako emaitza baino hobea lortzen duenean izan ezik; kasu horretan, Aseguru Etxeak ordainduko ditu.

Erreklamazioa egiten duena ere Aseguru Etxean aseguraturuta badago, edo bestelako interes-gatazkaren bat badago, Aseguru Etxeak berehala emango dio aseguratuari zirkunstantzia horien berri, nahiz eta hori ez den oztopo izango defentsarako beharrezkoak diren presako eginbideak egiteko. Aseguratuak erabaki ahal izango du zuzendaritza juridikoa, hala ere, Aseguru Etxeak egitea nahi duen, ala bere buruaren defentsa beste pertsona baten esku jarri nahi duen. Azken kasu horretan, Aseguru Etxeak zuzendaritza juridikoaren gastuak ordaindu beharko ditu, Baldintza Partikularretan zehaztutako mugaraino.

Defentsa Juridikoaren Bermeak estaltzen duen ezbeharrak gertatzen denean:

Aseguru Etxeak egingo ditu aseguratuen uziak edo eskubideak aitortuko dituen transakzio bidezko konponbidea lortzeko izapideak.

Ezbeharraren inguruabarrak direla eta abokatuaren eta/edo prokuradorearen laguntza behar denean, aseguruak askatasun osoz aukeratuko ahal izango ditu bere interesak defendatuko dituzten profesionalak.

Aseguruak askatasunez aukeratutako profesionalak erabateko askatasuna izango dute beraiei emandako auzien zuzendaritza teknikoan, eta beraien lanetan ez dira egongo Aseguru Etxearen mende; Aseguru Etxeak, halaber, ez du profesional horien jardunagatik erantzungo, ezta auziaren edo prozeduraren emaitzagatik ere.

Hala ere, egindako kudeaketa-kontuen berri eman beharko dute Aseguru Etxeari ordainsariak eta ordejarriak aurkezten dizkiotenean, hartutako erabakiak arrazoituz, egindako tasazio, peritutza, aktuario-txosten, ikerketa pribatu edo bestelako, demanda, salaketa edo errekurso-aurkezteen egokitasunari dagokionez; eskakizun hau nahitaezkoa baita beren zeregin profesionala eta, ondorioz, ordainsariak justifikatzeko.

Aseguruak obligazioa du izapideen bilakaerari buruzko informazioa emateko Aseguru Etxeari.

Presa handikoa bada abokatuak edo prokuradoreak parte hartzea ezbeharraren berri eman aurretik, Aseguru Etxeak ordainduko ditu orduan ere horien jardunetik eratorritako ordainsariak eta gastuak.

Alderdien artean interes-gatazkarik sortuz gero, Aseguru Etxeak horren berri emango dio aseguratuari, aseguruak erabaki ahal izan dezan bere interesak defendatzeko egoki deritzan abokatu edo prokuradorea izendatzea, hurrengo paragrafoan aitortzen den aukeratze-askatasunaren arabera.

Aseguruak ordezkatu eta defendatuko duten prokuradorea eta abokatu askatasunez aukeratzeko eskubidea izango du edozein motatako prozeduratan.

Izendapena egin aurretik, hautatutako abokatu edo prokuradorearen izena jakinaraziko dio aseguratuak Aseguru Etxeari. Aseguru-etxeak arrazoiak emanez errefusatu ahal izango du izendatutako profesionala, eta, eztabaidak jarraitzen badu, arbitrajepean jarriko da, kontratuaren preskripzioari eta jurisdikzioari buruz ezarritakoarekin bat (117. or.).

Aseguru Etxeak erabakiak hartu ahal izango ditu auziak hasteari edo auzitegi nagusietan errekurtsuak jartzeari buruz. Era berean, transakzioen jatorriari buruz erabakiak hartu beharko ditu, betiere kostuak kobratzeari uko egitea badakar. Kasu guztietan, aseguratuari ezagutarazi beharko zaio Aseguru Etxeak hartutako erabakia.

Aseguratuak bide judizialek jotzea edo errekursoarekin aurrera egitea erabakitzen badu Aseguru Etxearen iritzia kontra, bere kontura izango dira sortzen diren gastu guztiak, baina aurreko auzialdiak jasotako emaitza baino hobea lortzen badu, Aseguru Etxeak ordainduko dizkio gastu horiek Baldintza Partikularretan finkatutako mugara arte.

Aseguratuak erabakitzen badu bere eskubideen gainean transakzioak egitea Aseguru Etxearen erabakiaren aurka, berak ordaindu beharko ditu sortuko diren gastu guztiak, baita bere letraduarena eta ordezkariarena ere.

Aseguru-kontratuaren interpretazioari buruz aseguruaren eta Aseguru Etxearen artean izan daitezkeen eztabaidak arbitrajepean jarri ahal izango dira. Arbitroen izendapena ezingo da egin harik eta eztabaida sortu arte.

Ez dira estaltzen:

Aseguratuak izendatutako profesionalen ordainsariak Aseguru Etxearen kontura izango dira, dagokion Elkargo Profesionalak ezarritako ordainsari orientagarrien taulan zehaztutako mugara arte.

Ordainsarien kalkuluan, jurisdikzioa edozein dela ere, eskalak aplikatzeko oinarria epai irmo bidez benetan lortu edo onartutako zenbatekoa edo kopurua izango da, eta ez eskatutakoaren zenbatekoa.

Aseguru Etxeak ez ditu bere gain hartuko letradura Elkargoan sartzeko edo gaitzeko gastuak ere, jarduera profesionala egin behar duen lekuko Elkargokoa ez denean, eta ezta bidaia-, ostatu- eta dieta-gastuak ere.

Aseguratuak aukeratutako abokatua edo prokuradorea ez bada bizi prozedura bideratu behar den barruti judizialean, aseguruak ordaindu beharko ditu profesionalak joan-etorriengatik fakturan sartzen dituen gastuak eta ordainsariak.

Aseguratuak bide judizialek jotzea edo errekursoarekin aurrera egitea erabakitzen badu Aseguru Etxearen iritzia kontra, bere kontura izango dira sortzen diren gastu guztiak, baina aurreko auzialdian jasotako emaitza baino hobea lortzen badu, Aseguru Etxeak ordainduko dizkio gastu horiek Baldintza Partikularretan finkatutako mugara arte.

Defentsa Juridikoaren Bermeak (Zirkulazioko Lege-hausteen Defentsa) estaltzen duen ezbeharrak gertatzen denean:

Aseguratuak, isun bat ezarri diotela jakinarazten diotenean, Aseguru Etxearekin harremanetan jarri beharko du, 7 eguneko epean gehienez ere, jakinarazpena eta jakinarazpena zetorren gutun-azala aurkeztuz.

Bidaia-ko Laguntzako (ibilgailuen BGM ≤ 3.500 kg), Laguntza Zabaltzeko edo Ordezko Ibilgailuko Bermeak estaltzen duten ezbeharrak gertatzen denean:

Aseguratuak ezbeharrak gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta ezbeharrak behar bezala kudeatzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan eman ahal izango da; hurrengoak dira harremanetarako bideak:

Telefonoa	900 38 08 38
Atzeritik	00 34 944 05 14 12

Kalteen balorazioa

Zenbateko aseguruak Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten du.

Asegurua ezin da izan aseguratua bidegabe aberasteko bitartekoa.

Kalteen Bermeak estaltzen dituen ezbeharren kalte-balorazioa:

Aseguratuak egindako ezbeharren peritu-enkargua jaso eta hurrengo zazpi egunen barruan eman beharko die hasiera kalteen tasazioaren izapideei Aseguru-etxeak.

Aseguratutako ibilgailuaren kalteen kalte-ordainak honela egingo da:

Ibilgailua erabat galtzen bada, salmenta-balioaren arabera kalte-ordaina emango da. Horretarako, erreferentzia gisa erabiliko da Asociación Nacional de Vendedores de Vehículos a Motor, Reparación y Recambios (GANVAM) elkarteak argitaratutako Boletín Estadístico de Información-en ibilgailu horrentzat ezarritako balioa, ezbeharrak gertatu aurre-aurreko unean, eta ateratzen den zifrari ibilgailu-hondakinen balioa kendu beharko zaio, aseguruaren jabetzan geratuko baitira. Ibilgailuaren erabateko galeraren kalteak ordaintzeko ezarritako irizpide berak erabiliko dira aseguratutako osagarriak baloratzeko.

Erabateko galera izan dela ulertuko da ezbeharra izandako ibilgailua konpontzeko estimatzen den zenbatekoa ibilgailuaren salmenta-balioa baino handiagoa denean, eta horretarako erreferentzia gisa erabiliko da Asociación Nacional de Vendedores de Vehículos a Motor, Reparación y Recambios (GANVAM) elkarteak argitaratutako Boletín Estadístico de Información-en ibilgailu horrentzat ezarritako balioa.

Hala eta guztiz ere, aseguratutako ibilgailuak, ezbeharra gertatzen den unean, urtebete ere ez badu lehen aldiz matrikulatu zen datatik kontatzen hasita, aseguratuak ibilgailu berri bat jartzea aukera dezake, betiere ibilgailu hori oraindik merkaturatzen bada, edo ibilgailuaren berritako balioaren 100eko 100 kalte-ordain gisa jasotzea.

Kalte-ordainaren zenbatekoa, nolahi ere, automobil-kontzesionario batek erabateko galera izan duen ibilgailuaren antzeko batentzat eskaintako baliorik txikienaren parekoa izango da. Ibilgailuaren erabateko galeraren kalteak ordaintzeko ezarritako irizpide berak erabiliko dira aseguratutako osagarriak baloratzeko.

Erabateko galerarik ez dagoenean, ordeztu beharreko materialen eta eskulanaren benetako kostuaren arabera emango da kalte-ordaina, baina ibilgailuaren salmenta-balioa gainditu gabe.

Ibilgailuaren Kalte, Lapurreta, Sute, Kalte atmosferiko eta Animaliekiko talken Bermea Zabaltzeak estaltzen dituen ezbeharrek eragindako kalteen balorazioa:

Aseguratutako ibilgailua erabat galdu bada talka egitearen, fenomeno meteorologikoak izatearen, sutea izatearen, ibilgailu osoa ostearen, ostu izanaren ondorioz hirugarren batzuen eskuetan egon den bitartean edo delitua egitean (edozein eratan eginda ere) jasandako kalteen ondorioz; kalte-ordain hauek emango dira:

Ezbeharra gertatutako unean aseguratutako ibilgailuak 3 urte egin ez baditu lehen aldiz matrikulatu zen datatik, kalte-ordaina ibilgailuaren birjarpen-balioaren 100eko 100ari dagokiona izango da, markak oraindik komertzializatzen jarraitzen bada. Ibilgailua fabrikatzen ez bada, lehenengo matrikulazioaren unean ibilgailuagatik ordaindutakoaren kalte-ordaina emango da, errekarquak eta zergak barne.

Gainerako kasuetan, % 30ean igotako salmenta-balioaren arabera emango da kalte-ordaina. Horretarako, erreferentzia gisa erabiliko da Asociación Nacional de Vendedores de Vehículos a Motor, Reparación y Recambios (GANVAM) elkarteak argitaratutako Boletín Estadístico de Información-en ibilgailu horrentzat ezarritako balioa, ezbeharrak gertatu aurre-aurreko unean, eta ateratzen den zifrari ibilgailu-hondakinen balioa kendu beharko zaio, aseguratuen jabetzan geratuko baitira. Ibilgailuaren erabateko galeraren kalteak ordaintzeko ezarritako irizpide berak erabiliko dira aseguratutako osagarriak baloratzeko.

Erabateko galera izan dela ulertuko da ezbeharrak izandako ibilgailua konpontzeko estimatzen den zenbatekoa ibilgailuaren salmenta-balioa baino handiagoa denean, eta horretarako erreferentzia gisa erabiliko da Asociación Nacional de Vendedores de Vehículos a Motor, Reparación y Recambios (GANVAM) elkarteak argitaratutako Boletín Estadístico de Información-en ibilgailu horrentzat ezarritako balioa.

Ibilgailuaren zati finkoak osatzen dituzten pieza ostean direnean, eta pieza horiek osagarritzat hartzen ez badira, espresuki aseguratuta egon ezean, oste-unean pieza horiek duten balioaren 100eko 100eko kalte-ordaina emango da. Ibilgailu osoa ostu izanaren kalteak ordaintzeko ezarritako irizpide berak erabiliko dira aseguratutako osagarriak baloratzeko.

Musika-ekipoen kalte-ordaina ordeztu ondoren emango da, ordezte-balioan, eta kalte-ordainaren gehieneko muga polizako Baldintza Partikularretan zehaztutako balioa izango da.

Pneumatikoen Kalteen Bermeak estaltzen dituen ezbeharren kalte-balorazioa:

Kaltetutako pneumatikoa konpon badaiteke, pneumatikoa konponduko da. Pneumatikoa konpondu ezin bada, kalte-ordaina emango da irizpide honen arabera:

Kaltetutako pneumatikoaren aldeko ardatzak % 10 baino gutxiagoko higadura badu, kaltetutako pneumatikoaren kalte-ordaina emango da ezaugarri bereko pneumatiko berriaren balioarekin, neurriari eta markari dagokienez. Kaltetutako pneumatikoaren aldeko ardatzak % 10 baino gehiagoko higadura badu, berriz, ardatz horretako bi pneumatikoen kalte-ordaina emango da antzeko ezaugarriekin neurriari eta markari dagokienez, baina pneumatikoen erakusten duten higadurari dagokion balio-galera kontuan hartuz.

Ibilgailuko Gidariarentzako Istripu Pertsonalen Bermeak (Heriotza) estaltzen dituen ezbeharren kalte-balorazioa:

Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratutako ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-istripuan gidaria bere ezkontidearekin eta/edo izatezko bikotekidearekin batera hilko balitz eta gidariak seme-alaba adingabe, ezindu edo bere kontura bizi den bat izango balu.

Ibilgailuko Gidariarentzako Istripu Pertsonalen Bermeak (Ezintasun iraunkorra) estaltzen dituen ezbeharren kalte-balorazioa:

Aseguru Etxeak, ezintasuna egiaztatzen duen ziurtagiri medikoaren edukia oinarritzat hartuta, ezintasun-mailari dagokion kalte-ordaina zehaztuko du, Aseguru Pribatuak Antolatuta eta Ikuskatzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, Lege horri irailaren 22ko 35/2015 Legeak, zirkulazio-istripuetan pertsonak jasandako kalte eta galerak baloratzeko sistema erreformatzen duenak, eranskin gisa gehitutako 2.A.1 taularekin bat etorritik ("Baremo medikoa"), bigarren atalean ezarritakoa alde batera utziz: "kapitulu berezia: kalte estetikoa". Horren ondoriozko puntu guztien zenbatekoa, dauden ezintasun guztien formula aplikatu ondoren, halakorik balego, kontratatutako kapitaletik dagokion ehunekoak izango dela ulertuko da, kapital osoaren % 1 puntu bakoitzeko.

Kalte estetikoa ezin da ordaindu orbainak, kanpo-deformazioak edo aipatutako legezko baremo medikoan kalte estetikoaren kapitulu berezian sar daitezkeen beste edozein motatako ondorioak badira ere.

Istripu beraren ondorioz hainbat ezintasun-mota badaude, horien kalte-ordainaren ehunekoak metatu egingo dira, baina batura hori ezingo da izan estaldura horrentzat aseguratutako zenbatekoaren % 100 baino handiagoa.

Gorputz-adar edo organo berean ezintasun partzial bat baino gehiago badaude, ezintasun horien ehuneko guztien batura ezingo da izan gorputz-adar edo organo hori erabat galtzen denerako finkatutako ehunekoak baino handiagoa.

Baremoan zehazki azaltzen ez diren ezintasun-motei dagozkien ehunekoak baremoan agertzen diren antzeko beste batzuekin duten analogiaren arabera finkatuko dira.

Epigrafe desberdinetan ebaluatu daitezkeen ezintasun-motetan kalte-ordain handiena duena hartuko da kontuan.

Istripu batean afektatutako gorputz-adar edo organo batek aurretik anputazioak edo muga funtzionalak bazituen, aplikatuko den kalte-ordainaren portzentajea lehendik zegoen ezintasunaren eta ezbeharren ondoriozko ezintasunaren portzentajeen arteko aldea izango da.

Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratutako ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-

istripua dela-eta aseguruari III. mailako mendekotasuna aitortzen bazaio erakunde eskudunak emandako ebazpenaren bidez abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak) ezarritakoarekin bat.

Gidabaimena Kentzeagatiko Bermeak estalitako ezbeharrak eragindako kalteen balorazioa (Gidabaimena errebokatzeagatik hilean laguntza bat ordaintzea eta Gidabaimena errebokatua izan ondoren prestakuntza-ikastaroetan matrikulatzeko gastuak)

“Gidabaimena errebokatzeagatik hilean laguntza bat ordaintzea” eta “Gidabaimena errebokatua izan ondoren prestakuntza-ikastaroetan matrikulatzeko gastuak” prestazioen muga ekonomikoa ezartzeko, kontzeptu hauek hartuko dira kontuan:

- 1) Kontratututako hileko subsidioa (Polizako Baldintza Partikularretan gidabaimena errebokatzeagatiko diru-laguntzarako seinalatutako kapitala eta 500 euro prestakuntzako ikastaroetako matrikulazio-gastuetarako).
- 2) Aseguruaren puntu guztien kreditua, gidabaimena eskuratzen denean (8 puntu gidari berriren kasuan eta gidabaimena errebokatu ondoren berreskuratzen dutenen kasuan, eta 12 puntu gainerakoetan).
- 3) Aseguruak gidabaimena kontratatzeke unean zituen puntuen kopurua edo poliza kontratatu ondorengo zehapenengatik gidabaimena errebokatzea eragiten duten puntu guztiak. (Bi kasuetan 12 puntu gehienez ere).

Kalte-ordainaren kalkuluan:

$$\text{Gidabaimena errebokatzearen kalte-ordaina} = \text{Kontratututako hileko subsidioa (1)} \times \frac{\text{Kontratua egiten deneko puntuen kopurua edo polizak indarrean dirauen bitartean galdutako puntuen kopurua, gidabaimena errebokatzea suposatzen dutena (3)}}{\text{Puntu guztien kreditua (2)}}$$

Estaldura honen ondorioetarako, arau-haustea egin zen data hartuko da puntuen galera-datatzat.

Kalte-ordainen ordainketa

Ezbeharra izan dela erabakitzeke eta, halakorik denean, gertatutako kalteen zenbatekoa zehazteko beharrezkoak diren ikerketak eta peritazioak bukatzen direnean, kalte-ordaina ordaintzeko obligazioa izango du Aseguru Etxeak. Edozein kasutan, Aseguru Etxeak, ezbehar-deklarazioa jasotzen denetik berrogei egun bete baino lehen, zor dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du berak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera.

Aseguruaren izaerak aukera ematen duenean eta aseguruak baimena ematen duenean, Aseguru Etxeak kalte-ordaina ordaindu beharrean ezbeharrak hondatutako objektua konpondu edo ordeztu ahal izango du.

Aseguru Etxea berandutzan erortzen bada prestazioa emateko garaian, aseguruarentzat onuragarrien diren kontratu-klausulak baliozkotzat joko diren arren, ondoko arauen arabera emango da kalte eta galeren ordaina:

1. Oro har, Aseguru Etxeak aseguru-hartzaileari edo aseguratuari buruz izandako berandutzari eragingo dio, eta bereziki, erantzukizun zibileko aseguruan kaltetutako hirugarrenari buruz izandako berandutzari.

2. Kalte-ordaina ematean —diruz ordaintzean edo hondatutako objektua konpontzean edo ordeztean— izandako berandutzari aplikatuko zaio, baita Aseguru Etxeak zor izan dezakeen gutxieneko zenbatekoa ordaintzeko garaian izandako berandutzari ere.

3. Aseguru Etxea berandutzan erori dela ulertuko da, ezbeharra gertatu eta hiru hilabetera prestazioa eman ez badu, edo ezbeharraren deklarazioa jaso zenetik berrogei eguneko epean zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez badu.

4. Berandutzaren kalte-ordaina ofizioz ezarriko du organo judizialak eta ordaindu beharreko zenbatekoa urteko interesa izango da, honela kalkulatuta: sortzen den garaian indarrean dagoen diruaren legezko interesa ehuneko berrogeita hamarreen igoa; ulertuko da interes horiek egunez egun sortzen direla, erreklamazio judizialen beharrik gabe. Hala ere, ezbeharra gertatu denetik bi urte igaro ondoren, urteko interesa ezingo da ehuneko hogeitik beherakoa izan.

5. Ezbeharrak hondatutako objektua konpondu edo ordezteari dagokionez, interes-kalkuluaren hasierako oinarria konponketa edo ordezte horren zenbateko likidoa izango da, eta likidezirik ezak ez du eragotziko interesak sortzen hastea hurrengo 6. atalean adierazten den datan. Gainerako kasuetan, zor den kalte-ordaina izango da kalkuluaren hasierako oinarria, edo Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa bestela.

6. Interes horiek kontaktzen hasteko hasiera-muga ezbeharraren data izango da. Hala ere, aseguruaren hartzaileak, aseguratuak edo onuradunak ez badute ezbeharraren berri emateko betebeharra bete polizan ezarritako epean edo, subsidiarioki, hura ezagutu eta zazpi eguneko epean, ezbeharraren berri eman den eguna izango da kontaktzen hasteko hasiera-muga. Kaltetutako hirugarrenari edo haren jaraunsleei dagokienez, zenbaki honetako lehen paragrafoan xedatutakoa salbuetsi egingo da aseguratzaileak frogatzen

badu ez zuela ezbeharraren berri izan kaltetuak edo haren jaraunsleek erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkeztu arte, eta, kasu horretan, erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkezten den data izango da hasieramuga.

7. Interesak kontatzeko amaiera-muga izango da, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu gabeko kasuetan, aurreko zenbakiaren arabera kalte-ordainaren zenbateko osoarengatik interesak sortzen hasten den eguna, salbu Aseguru Etxeak gutxieneko zenbateko hori lehenago ordaintzen badu, kasu horretan ordainketa horren eguna izango baita muga-eguna. Gainerako kasuetan, berandutza-interesak ordaintzeko Aseguru Etxeak duen obligazioaren amaiera-data izango da, aseguratuari, onuradunari edo kalte-dunari ordainketa, konponketa edo ordezpenaren bidez kalte-ordaina ematen dion eguna.

8. Aseguru Etxearen berandutzagatik ez da kalte-ordainik eman beharko, kalte-ordaina edo gutxieneko zenbatekoa ez ordaintzeko arrazoi justifikatu bat edo aseguratzaileri egotzi ezin zaiona egon bada.

9. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak kalte-ordaina ordaindu behar badu berme-funts gisa, berandutzan erori dela ulertuko da kalte-ordaina ordaintzea erreklamatu zaionetik hiru hilabete pasa badira eta ordainketa ez badu egin dagokion arautegiaren arabera, baina ez zaio aplikatuko gutxieneko zenbatekoaren ordainketan izandako berandutzagatik kalte-ordaina emateko obligazioa. Gainerakoan, Partzuergoak berme-funts gisa parte hartzen duenean, eta, salbuespenik gabe, Partzuergoak zuzeneko aseguratzaille gisa egiten duenean kontratua, erabat aplikagarri izango zaio artikulu hau.

10. Aseguru Etxearen berandutzako kalte-ordaina erabakitzean ez da aplikatuko Kode Zibileko 1.108. artikuluan xedatutakoa, ez eta Prozedura Zibilaren Legeko 921. artikuluko laugarren paragrafoan ezarritakoa ere, azken agindu horretan epaiaren errebokatze erabateko edo partzialari buruz dauden aurreikuspenak izan ezik

Aseguru Etxeak polizaren arauetan oinarrituz ezbeharra ez onartzea erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dio aseguratuari zazpi eguneko epean, ez onartzea eragin duen kausa jakin duen egunetik hasita. Idazki horretan ezbeharra ez onartzeko arrazoiak azaldu beharko dira.

Ezbeharra ez onartzea bidezkoa bada, ezbehar horren kontura ordainketak egin ondoren edo ezbehar horren ondorioetarako fidantzak ezarri ondoren, Aseguru Etxeak ordaindutako zenbatekoak edo eratutako fidantzaren ondorioz nahitaez ordaindu beharko litzkeenak erreklamatu ahal izango ditu aseguratuaren kontra.

Kalte-ordainaren jatorria Borondatezko Erantzukizun Zibileko Bermean badago:

Aseguru Etxeak bost eguneko epean ordaindu beharko du kalte-ordaina, akordioa formalizatzen denetik kontatzen hasita judizioz kanpoko transakzioa denean, edo epaia betearazteko izapidean errekerimendua egiten den egunetik hasita, erreklamazio judiziala izan denean.

Kalte-ordainaren jatorria Kalte, Lapurreta, Sute, Kalte atmosferiko eta Animaliekiko talken Bermeetan, Pneumatikoetako kalte eta Ibilgailuko Gidariarentzako Istripu Pertsonalen Bermean badago:

Aseguru Etxea eta aseguratua ados jartzen badira kalte-ordainaren zenbatekoari eta kalte-ordaina emateko moduari buruz, Aseguru Etxeak 5 eguneko epean ordaindu beharko dio aseguratuari hitzartutako zenbatekoa.

Istripu Pertsonalen bermean, ibilgailuko gidariaren heriotza gertatuz gero, Aseguru-etxeak hitzartutako kapitala ordainduko dio onuradunari 5 eguneko epean, heriotza, bere onuradun-izaera eta dagokion likidazio fiskala frogatzen duten dokumentuak jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita.

Istripu Pertsonalen bermean, ibilgailuko gidariaren ezintasun iraunkorra gertatuz gero, aseguruak dagokion ezintasunaren egiaztagiria aurkeztu ondoren eta Aseguru Etxeak kalte-ordaina zehaztu ondoren, Aseguru Etxeak aseguratuari kalte-ordainaren zenbatekoa jakinaraziko dio, mediku-ziurtagirian ezarritakoa eta legezko baremoa kontuan hartuta.

Ezbeharrak deklaratu eta ondorengo berrogei egunetan akordiorik lortzen ez bada, arau hauek aplikatuko dira:

- Alderdi bakoitzak peritu bat izendatuko du, eta idatziz jaso beharko da horien onarpena. Alderdietako batek izendapenik ez badu egiten, zortzi eguneko epean egin beharko du bere peritua izendatu duen alderdiak errekerimendua egiten dion egunaren biharamunetik kontatuta, eta epe horretan ere egiten ez badu, beste alderdiaren perituaren irizpena onartzen duela ulertuko da, eta horri loturik geratuko da.

Perituak ados jarriko balira, baterako akta batean jasoko da, eta akta horretan adieraziko dira ezbeharraren kausak, kalteen balorazioa, kalte-ordaina finkatzeko orduan eragina duten gainerako zirkunstantziak eta kalte-ordainaren zenbateko likidoaren proposamena.

- Perituen artean adostasunik ez dagoenean, bi alderdiek hirugarren peritu bat izendatuko dute, bien artean adostuta. Izendapen hori ez badute egiten, ondasunak dauden lekuko lehen auzialdiko epaileak egingo du izendapena, borondatezko jurisdikzioko egintzan eta Prozedura Zibilaren Legean perituen zozketa egiteko aurreikusitako izapideen bidez. Kasu horretan, perituaren irizpena alderdiek seinalatzen duten epean emango da, edo, horrelakorik ezean, hogeita hamar eguneko epearen barruan, hirugarren perituak bere izendapena onartzen duenetik kontatzen hasita.
- Perituen irizpena, aho batez edo gehiengoz lortutakoa, berehala eta zalantzarik gabek jakinaraziko zaie alderdiei eta loteslea izango da horientzat, baldin eta alderdietako baten batek judizialki aurkaratzen ez

badu, hogeita hamar eguneko epean Aseguru Etxearen kasuan eta ehun eta laurogei eguneko epean aseguruaren kasuan, biak jakinarazpen-datatik kontatzen hasita. Epe horien barruan akziorik aurkezten ez bada, perituen irizpena erasoezin bihurtuko da.

- Perituen irizpena aurkaratzen bada, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du, berak ezagutzen dituen zirkunstantzien arabera, eta aurkaratzen ez bada, adituek esandako kalte-ordainaren zenbatekoa ordainduko du bost eguneko epean.
- Aseguru Etxeak erasoezin bilakatutako kalte-ordainaren ordainketa atzeratuko balu, eta aseguruak auzibidez erreklamatu behar izango balu, kalte-ordain hori urteko 100eko 20an gehituko da, balorazioa Aseguru Etxearentzat erasoezin bilakatu zen egunetik kontatzen hasita, eta, nolana ere, aseguruari prozesuan sortzen zaizkion gastuen zenbatekoa estaliko du.

Alderdi bakoitzak bere perituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren perituaren gastuak eta peritu-tasazioak sor ditzakeen gainerako gastuak erdibana izango dira aseguruaren eta Aseguru Etxearen kontura eta kargura. Hala ere, alderdietako bat izan bada peritazioa egitera behartu duena, kaltearen balorazio guztiz neurrigabekoa egiteagatik, bera izango da gastu horien erantzule bakarra.

Heriotzaren aurretik ezintasun iraunkorrek kontzeptuarengatik zenbatekoren bat ordaindu bazaio aseguruari, zenbateko hori kendu egingo zaio Heriotzagatiko kalte-ordainari.

Ez da kalte-ordainik emango aseguruaren onuradunak doloz eragin bada aseguruaren heriotza, deuseza izango da bere alde egindako izendapena eta kalte-ordaina aseguruaren jaraunsleentzat izango da.

Ezbeharraren ondorioz ibilgailu aseguratua erabat galtzen bada, ezbeharra gertatu denetik aurrera kalte-ordainak eragindako estaldurarik gabe kontratatuta geratuko da poliza. Aseguru-etxeak, kalte-ordaina emanez gero, ez dio aseguruari eragindako estaldurari dagokion primaren inolako zatirik ordaindu beharko.

Subrogazioa

Aseguru Etxeak, kalte-ordaina ordaindu ondoren, ahalmena izango du ezbeharra dela-eta aseguruari dagozkion eskubideak eta akzioak egikaritzeko ezbeharraren erantzule diren pertsonen aurrean, kalte-ordainaren mugara arte; eskubide hori ezingo du aseguruaren kalterako erabili.

Bere egiteez edo ez-egiteez Aseguru Etxeari subrogazio-eskubidean eragin diezazkiokeen kalteen erantzulea izango da aseguraturua.

Aseguru Etxeak ez du, legearen arabera, subrogatzeko eskubiderik izango beren egitez edo ez-egitez aseguratuaren erantzukizuna sorrarazi duten pertsonen aurka, ezta ezbeharraren eragilearen aurka ere, pertsona hori aseguratuaren ahaidea bada—zuzeneko edo zeharkako ahaidea, odolkidetasunaren 3. graduraino—, aseguratuarekin bizi den guraso adoptatzailea bada edo adopziozko semea edo alaba bada. Arau honek ez du ondoriorik izango erantzukizuna dolozkoa bada, edo aseguru-kontratu batek babesten badu. Azken kasu horretan, subrogazioa kontratu horren baldintzen arabera egongo da mugatua bere norainokoa.

Aseguru Etxea eta aseguraturua beste hirugarren erantzule baten aurrean batera gertatuko balira, lortutako berreskuratzea bien artean banatuko da bakoitzaren interesaren proportzioan.

POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

Aseguruaren oinarriak

Aseguru-hartzaileak egindako eta Baldintza Partikularretan jasotako deklarazioetan oinarrituta hitzartu da poliza hau, eta deklarazio horien arabera onartu du Aseguru Etxeak arriskua, eta hala kalkulatu da dagozkion prima.

Aseguru-hartzaileak deklarazioetan informazioen bat isildu edo oker emango balu, edo zehatz azalduko ez balu, berak ezagutzen dituen eta arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen zirkunstantzietan buruz, ondorengo arau hauek aplikatuko dira:

Aseguru Etxeak kontratua desegin ahal izango du, aseguruaren hartzaileari zuzendutako deklarazio bat eginez hilabeteko epean, informazioa isildu edo oker eman dela jakiten duenetik kontatzen hasita. Aseguru Etxearentzat izango dira, bere aldetik dolo edo erru larririk ez bada behintzat, deklarazioa egiten den unean hasita dagoen aseguru-aldiari dagozkion primak.

Ezbeharrak Aseguru Etxeak deklarazio hori egin baino lehenago gertatzen bada, kalte-ordaina proportzionalki murriztuko da, arriskuaren benetako tamaina ezagutuko balitz aplikatuko litzatekeen primaren eta hitzartutako primaren arteko aldearen proportzioan. Aseguru-hartzailearen aldetik dolo edo erru larririk izan bada, Aseguru Etxea libre geratuko da kalte-ordaina ematek.

Polizaren edukia aseguru-proposamenaren edo hitzartutako klausulen desberdina baldin bada, aseguruaren hartzaileak erreklamazioa egin ahal izango dio Aseguru Etxeari, poliza entregatzen den unetik hilabeteko epean, dagoen desadostasuna konpon dezan. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan ezarritakoari jarraituko zaio.

Aseguruaren hasiera eta iraupena

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan jarriko da indarrean aseguruaren, aseguratzailea 15 eguneko epean lotuko zaio aseguruaren proposamenari, eta aseguru-hartzailea behartuta geratuko da baldintzetan ezarritako prima ordaintzera.

Kontratua deuseza izango da, sinatzen denerako arriskua desagertu bada edo ezbeharrak gertatu bada.

Polizako Baldintza Partikularretan adierazitako denbora-epean egongo da indarrean aseguruak. Epealdia luzatzeko aukerarekin kontratatzen bada, isilbidez luzatuko da aldiko urtebeterako, alderdietako batek aurkakoa adierazi ezean beste alderdiari idatziz jakinaraziz, gutxienez, hasita dagoen epealdia amaitu baino hilabete lehenago aseguru-hartzaileak uko egiten dionean, eta bi hilabete lehenago, berriz, uko egiten diona aseguratzailea denean.

Kontratua desegiteko erabakia aseguru-hartzailearena baldin bada, Aseguru Etxearen alde geratuko dira hasita dagoen epealdiko primak, eta erabakia Aseguru Etxearena bada, aldiz, desegite-datatik hasi eta ordaindutako primak estalitako aseguru-aldia amaitu arte geratzen den denborari dagokion prima-zatia itzuli beharko dio Aseguru Etxeak aseguru-hartzaileari.

Alderdietakoren batek hitzartutako bermeak aldatu nahi izanez gero, estaldurak kenduz edo murriztuz, beste alderdiari jakinarazi beharko dio, gutxienez hasita dagoen epealdia bukatu baino bi hilabete lehenago. Jakinarazpena jaso duen alderdiak erantzuten ez badu epealdia bukatu baino hamabost egun lehenago, ulertuko da onartu egiten duela eta aseguruaren hurrengo epealditik aurrera izango ditu ondorioak; eta ezetz erantzuten badu, poliza desegiteko aukera egongo da esandako muga-egunetik aurrera.

Edozein arrazoi dela-eta aseguraturako arriskua desagertuz gero, poliza deseginda geratuko da inguruabar hori gertatzen den datan bertan, eta Aseguru Etxea aseguratuari primaren zati bat itzuli beharretik libre geratuko da.

Primen ordainketa

Aseguru-hartzaileak polizako Baldintza Orokorren eta Partikularren arabera ordaindu beharko du prima. Aldizkako primak hitzartu badira, lehenengoa galdagarria izango da kontratua sinatzen den unetik aurrera. Polizan ez bada prima ordaintzeko lekurik zehazten, ordainketa aseguru-hartzailearen bizilekuan egingo dela ulertuko da.

Aseguru-hartzailearen erruz lehenengo prima ordaindu ez bada edo bere muga-eguna iristean prima bakarra ordaindu ez bada, Aseguru Etxeak eskubidea du kontratua desegiteko edo polizan oinarrituz zor den primaren ordainketa betearazpen-bidetik galdatzeko. Kontrakorik itundu ezean, prima ez bada ordaindu ezbeharra gertatu aurretik, Aseguru Etxea bere obligazioetatik libre geratuko da.

Ondorengo primetakoren bat ordaindu gabe geratzen bada, aseguruaren estaldura etenda geratuko da, muga-egunetik hilabete pasatu ondoren. Aseguru Etxeak ez badu ordainketa erreklamatzeko prima mugaeguneratu ondorengo sei hilabeteetan, kontratua iraungitza emango da. Nolanahi ere, kontratua etenda dagoenean, Aseguru Etxeak indarrean dagoen epealdiko prima ordaintzea soilik galda dezake.

Kontratua ez balego deseginda edo amaituta aurreko artikuluen arabera, estaldurak berriz ere ondorioak izango ditu aseguru-hartzaileak prima ordaintzen duen eguneko hogeita laugarren ordutik hasita.

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du urteko primaren ordainketa zatika egiteko eskubidea aseguru-hartzaileak hala eskatuz gero, polizako Baldintza Partikularretan ezarritako epeen eta zehaztutakoaren arabera.

Zatika ordaintzea baimendu bada eta, ezbeharraren ondorioz, aseguratuak ibilgailua erabat galtzen bada, Aseguru Etxeak kobratu gabe dauzkan eta hasitako aseguru-urteari dagozkion prima-zatien zenbatekoa kenduko da.

Kontratuaren eta/edo luzapenen iraupena hitzartutakoa izango da, eta ordainagiria zatitan banatzeak ez du aldatuko urteko primaren izaera zatiezina.

Poliza deuseztatzen bada Aseguru Etxearen borondatez kanpoko arrazoiren batengatik kontratuan hitzartutako iraunaldia amaitu baino lehen, aseguratuak kontratuaren iraupenari dagokion prima osoa ordaindu beharko du.

Zatikatuak ordainagiritakoren bat ordaintzen ez bada, aseguratuak prima zatika ordaintzeko eskubidea galduko du, eta Aseguru Etxeak zor zaion prima osoaren ordainketa betearazpen-bidetik galdatu ahal izango du.

Jaulkitzen dituen ordainagiriengatik bakarrik hartuko du obligazioa Aseguru Etxeak.

Aseguru Etxearen loturadun agente ordezkari bati egindako prima-ordainketak, zuzenean Aseguru Etxeari egindako ordainketaren balio bera izango du.

Arriskuaren aldaketak

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari eman beharko diote, ahal bezain laster, arriskua areagotzen duten zirkunstantzia guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan jakin izan balitu ez sinatzeko adinakoak edo bestelako baldintza zorrotzagoetan sinarazteko adinakoak baldin badira.

Arriskua areagotzen dute, adibidez, ohiko gidariaren eta/edo noizbehinkakoaren zirkunstantzia objektiboak (adina eta gidabaimenaren antzintasuna), eta aseguratuak ibilgailuaren ezaugarriak, erabilerari eta zirkulazio-lekuari buruzkoak.

Aseguru Etxeak onar dezake edo ez arriskua areagotzea, eta arau hauek aplikatuko zaizkio:

Onartzen badu, Aseguru Etxeak kontratuan behar den aldaketa egitea proposatuko dio aseguru-hartzaileari, arriskua areagotu dela deklaratu zaionetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Aseguru-hartzaileak hamabost eguneko epea izango du proposamen hori onartzeko edo ukatzeko, proposamena hartzen duenetik kontaktzen hasita. Aseguru-hartzaileak ukatzen badu edo ezer esaten ez badu, Aseguru Etxeak ahalmena izango du, epe hori bete ondoren, kontratua desegiteko aseguru-hartzaileari aurrez abisatuz eta beste hamabost eguneko epea emanez erantzun dezan; egun horiek pasatu eta hurrengo zortzi egunen barruan jakinaraziko dio aseguru-hartzaileari behin betiko kontratu-desegitea.

Aseguru Etxeak arriskuaren aldaketa ez badu onartzen, kontratua desegin ahal izango du. Baldintza Partikularretan aseguratu gisa agertzen denari hilabeteko epean jakinarazi beharko dio, arriskua areagotzearen berri izaten duen egunetik kontaktzen hasita.

Aseguru-hartzaileak edo aseguratuak aurreko artikuluan ezarrita dauden jakinarazpenik egin ez badu, eta ezbeharren bat gertatzen bada, Aseguru Etxea bere prestazioa ematetik libre geratuko da, hartzaileak edo aseguratuak fede gaiztoz jokatu baldin badu. Bestelako kasuetan, Aseguru Etxearen prestazioa murriztu egingo da, hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko aldearen proportzioan.

Arriskua areagotzea ez bada aseguru-hartzaileari edo aseguratuari egozteko modukoa, eta Aseguru Etxeak arrisku-aldaketa ez badu onartu nahi, sortu gabeko prima-zatia itzuli egin beharko du.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari eman ahal izango diote arriskua arintzen duten zirkunstantzia guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan ezagutu izan balitu bestelako baldintza mesedegarriagoetan sinarazteko adinakoak baldin badira.

Horrela bada, hasita dagoen epealdia amaitutakoan, Aseguru Etxeak dagokion proportzioan murriztu beharko du hurrengo primaren zenbatekoa. Bestela, aseguru-hartzaileak kontratua desegiteko eskubidea izango du, eta arriskua murriztu dela jakinarazten duenetik ordaindu beharko zukeen primaren eta ordaindu duen primaren arteko aldea itzul diezaiotela eskatu ahal izango du.

Aseguratutako ibilgailuaren transmisioa

Aseguratuak idatziz eman beharko dio eskuratzailari aseguratutako ondasunentzat egindako aseguruaren berri. Behin transmisioa egindakoan, Aseguru Etxeari edo bere ordezkariari ere idatziz jakinarazi beharko dio hamabost eguneko epean.

Aseguru Etxeak kontratua desegin ahal izango du, transmisioaren berri izan duen egunaren hurrengo 15 egunen barruan. Erabakia eskuratzailari idatziz jakinarazi ondoren, Aseguru Etxea hilabeteko epean geratuko da obligatuta, jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aseguru Etxeak itzuli egin beharko du kontratua desegitearen ondorioz arriskurik hartu ez duen aseguru-epaldiari dagokion prima-zatia.

Aseguratutako ibilgailuaren eskuratzailak kontratua desegin ahal izango du aseguruaren berri izan eta hamabost eguneko epean Aseguru Etxeari idatziz jakinarazten badio. Kasu horretan, Aseguru Etxeak hartzen du kontratua desegiten denean korritzen hasita legokeen epealdiari dagokion primaren eskubidea.

Aseguratutako ibilgailuari buruzko arauak berdin aplikatuko dira aseguru-hartzailearen edo aseguratuaeren heriotza, ordainketa-etendura, kita eta itxarote, eta kiebra edo konkurtso kasuetan ere.

Hobariak, ezbeharrak ez izateagatik

Prima hobari- eta errekar-gu-sistema bati jarraituz egokituko da, deklaratuak ezbeharren kopuruaren arabera eta une bakoitzean indarrean dagoen eta Aseguru Zuzendaritza Nagusiaren esku jarritako arauari eta koefiziente-taulari jarraituz:

Sistema hau bereiz aplikatuko da: Nahitaez Harpidetu Beharreko Erantzukizun Zibila delako motarentzat, alde batetik, eta Ibilgailuaren beraren kalteak direlako motarentzat, bestetik.

Honako arau hauek aplikatuko dira:

- a. Poliza kontratatzeke unean, zona neutroari (1,00) dagokion Bonus-Malus koefizientea esleituko da.
- b. Polizaren mugaeguneratze bakoitzean, Bonus-Malus koefiziente berria kalkulatu da berriro, behaketa-aldian aitortutako ezbehar konputagarrien kopuruaren arabera.
- c. Ikuskatze-aldizat joko da hamabi hilabete jarraituko aldia, aseguru-urtaldiaren amaiera-data baino hiru hilabete lehenago bukatzen dena, edo, hala badagokio, aplikatzekoa den iraunaldia aseguruaren amaiera-dataren aurreko hiru hilabete arte.
- d. Honako aitorten-mota hauei dagozkien ezbeharrak joko dira ezbehar konputagarritzat:
 - Erantzukizun Zibileko Asegurua, nahitaez harpidetu beharrekoa
 - Automobilen Borondatezko Asegurua- Norberaren Kalteen Modalitatea

Hala ere, ez dira ezbehar konputagarritzat joko, Lagun Aro aseguru-etxearentzat inolako kosturik sortu ez duten ezbeharrak, eta ezta, Norberaren Kalteen Modalitatearen ondorioetarako, erantzukizuna oso-osorik hirugarren bati egotzia dagoeneko ezbeharrak ere.

Bonus-Malus koefizientearen esleipena

Behaketa-aldian aitortutako ezbehar konputagarrien kopuruaren arabera, indarrean dagoen taulan dagokion koefizientea aurreko urtealdiari dagokion koefizientearekin biderkatuko da, eta, horrela, hurrengo urtealdian aplikatu beharreko koefizientea lortuko.

Aseguratuak eskatu ahal izango du une bakoitzean indarrean dagoen koefiziente-taulari buruzko informazioa Lagun Aro aseguru-etxearen edozein bulegotan.

Urtebetetik beherako behaketa-aldiak

- Behaketa-aldia hamar hilabete edo gehiagokoa baldin bada, aurreko 2. idatz-zatia aplikatuko da.
- Behaketa-aldia hamar hilabete baino gutxiagokoa baldin bada, eta ez badago aitortutako ezbehar konputagarririk, ez da egingo inolako aldaketarik Bonus-Malus koefizientearen. Ezbehar konputagarririk baldin badago, aurreko 2. idatzi-zatia aplikatuko da.

Bonus-Malus Koefizienteen Taula

AITORTUTAKO EZBEHARRAK	MODALIDAD	
	NAHITAEZKO ERANTZUKIZUN ZIBILA	NORBERAREN KALTEAK
0 ezbehar	0,94	0,9
1 ezbehar	1,10	1,10
2 ezbehar	1,30	1,25
3 ezbehar	2,00	1,50
4 ezbehar	3,00	2,00
5 edo gehiago	4,50	2,00

BONUS-MALUS KOEFIZIENTEEN MUGAK		
Gehienezko Malus	3,00	3,00
Gehienezko Bonus	0,47	0,45
Bonus Babestua	0,35	0,35

Koefizienteen kalkulua

Behaketa-aldian aitortutako ezbehar konputagarrien kopuruaren arabera, goiko taulan dagokion koefizientea aurreko urtealdiari dagokion koefizientearekin biderkatuko da, eta, horrela, hurrengo urtealdian aitortpen-mota bakoitzari aplikatu beharreko koefizientea lortuko.

Aplikatu beharreko azken koefizienteak, dagokion motaren tarifaren prima biderkatuko du, azken prima lortzeko. Primari aplikatu beharreko koefiziente horiek ezingo dituzte gaingitu goian adierazitako mugak.

Hala ere, Gehienezko Bonusa iristen denean, jarraitu ahal izango da hobariak sortzen (hurrengo urteetako koefizienteen kalkuluak egiteko soilik), Bonus Babestuaren mugaraino iritsi arte.

Malus zonan, ezbehar konputagarririk aitortu gabe, hiru urte egon daiteke gehienez ere, eta denbora hori pasatzen denean, zona neutrora pasatuko da (1,00).

Hartzekodun hipotekario, pignoraziozko edo pribilegiatuen eskubideak

Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hartzekodun hipotekario, pignoraziozko edo pribilegiatuek bereziki atxikitako ondasun hipotekatu, pignoratu edo pribilegioari lotutakoengatik Aseguratuari dagozkion kalte-ordainetara hedatuko da, ezbeharra berme erreala eratu ondoren edo pribilegioa sortu ondoren gertatzen bada.

Horretarako, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak hipoteka, bahi edo pribilegioa eratzearen berri eman beharko dio Aseguru Etxeari, horren berri edukitzen duenean, eta muga-egunaren berri ere bai.

Eskubidea jakinarazi zaionean, Aseguru Etxeak ezingo du zor den kalte-ordaina ordaindu eskubide errealaren edo pribilegioaren titularraren baimenik gabe; eta interesdunen artean auzirik izanez gero edo kalte-ordaina bermatutako betebeharraren muga-eguna baino lehen eman beharko balitz, kalte-ordainaren zenbatekoa gordailutan jarriko da haiei komeni zaien moduan eta, horrelakorik ez bada, Kode Zibileko 1.176 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aseguru Etxeak kalte-ordaina ordaintzen badu, hartzekodunei ezbeharraren berri eman eta hiru hilabete pasatutakoan horiek aurkeztu ez badira, betebeharretik libre geratuko da.

Aseguru Kontratuaren urriaren 8ko 50/1980 Legearen 41. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Kontratuaren azkentzea ezingo da alegatu hartzekodun hipotekario, pignoraziozko edo pribilegiatuaren aurka, kontratua azkentzeko arrazoi izan zen gertaera komunikatu zitzaionetik hilabete pasatu arte.

Aurreko paragrafoan deskribatutako hartzekodunek ordaindu ahal izango dute aseguru-hartzaileak edo aseguratuak ordaindu gabeko prima, azken horiek aurka egon arren. Horretarako, Aseguru Etxeak hartzekodunei jakinarazi beharko die aseguratuak prima ordaindu gabe daukala.

Aseguruen konkurrentzia

Poliza honek estaltzen dituen arriskuetakoren bat beste aseguru-erakunde batek ere estaliko balu epealdi berean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak, kontrako itunik ezean, beste aseguru horien berri eman beharko die Aseguru Etxeari eta gainerako aseguratzaileei.

Jakinarazpen hori doloz egingo ez balitz, eta, gainasegurua izanik, ezbeharra gertatuko balitz, Aseguru Etxeak ez du kalte-ordaina emateko obligaziorik izango.

Ezbeharra gertatutakoan, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, "Nola jokatu ezbeharra gertatutakoan" atalean

(Baldintza Orokor hauetako 95. Or. eta hurrengoak) ezarritakoaren arabera, gainerako aseguratzaileak nor diren adieraziz, eta horiek ere jarriko dute kalte-ordaina bakoitzak aseguraturako zenbatekoari dagokion proportzioan, kaltearen kopurua gainditu gabe betiere. Muga horren barruan, aseguratuak Aseguru Etxeari eskatu ahal izango dio zor dion kalte-ordaina, dagokion proportzioan.

Jakinarazpenak

Aseguru-hartzaileak, aseguratuak edo onuradunak egindako komunikazioak Aseguru Etxeari zuzenduta badaude soilik izango dira baliozkoak; dena dela, Aseguru Etxearen agente eskusibo bati edo banku-aseguruen operadore eskusibo bati egindakoek ere zuzenean Aseguru Etxeari egindako komunikazioen balio bera izango dute.

Aseguru Etxeak aseguru-hartzaileari egindako jakinarazpenak baliozkoak izango dira, Aseguru Etxeak ezagutzen duen hartzailearen azken helbidera igortzen badira; aseguru-hartzailearen jakinarazpenak, aldiz, Aseguru Etxearen helbide sozialera edo polizaren kudeaketan parte hartu duen bulegora bidali behar dira.

Aseguru-agente lotetsiei eta aseguru-etako artekariari egindako jakinarazpenek ez dute batere baliorik izango, horiek Aseguru Etxeari helarazpenik egiten ez badiote behintzat.

Artekari batek aseguru-hartzailearen izenean Aseguru Etxeari egindako jakinarazpenek hartzaileak berak egindakoen balio bera izango dute, horrek esanbidez kontrako adierazpenik egin ezean.

Kontratuaren preskripzioa eta jurisdikzioa

Kontratu honetatik eratorzen diren akzioek bi urteko epean preskribatuko dute, Istripu Pertsonalen estaldurari dagozkionak izan ezik; azken horiek bost urte igarotakoan preskribatuko dute. Akzioa egikaritzeko aukera dagoen egunetik aurrera emango zaio hasiera preskripzioaren epeari.

Aseguru-kontratu hau Espainiako jurisdikzioaren mende geratuko da, eta, jurisdikzio horren barruan, aseguratuaren bizilekuari dagokiona izango da kontratutik eratorritako akzioez arduratzeko eskumena izango duen epailea.

Alderdiak espresuki ados jarritz gero, kontratu honetatik sortutako iritzi-desberdintasunak arbitroen erabakipean jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

SEGUROS LAGUN ARO, S.A.



Zuzendaria

Telefono interesgarriak

barrialdietan 112

*Gure telefonoa 900 38 08 38 eta atzerritik sakatu
0034 944 05 14 12*

AUTOMOBILA

ETXEA

AURREZKI AURREIKUSPENA

BIZITZA ISTRIPUAK

OSASUNA

NEGOZIOA

EGUNEROKO BAJA